

Urtekaria



Joan da 2025a: euriteak, itzalaldia, nekeak... baita elkartasuna ere

Goierri-Donostia autobusa martxan jarri dute 2025ean. Ehunmilak trilogia 2026an ez dela egingo jakinarazi dute antolatzaileek. Palestinar herriaren aldeko mobilizazioek indarra hartu dute joan berri den urtean.



Kalte handiak eragin dituzte ekainaren 13ko euriteek

I.G/I.V/A.M

Ekainaren 13ko gauean erruz egin zuen euria Goierriin. Denbora gutxiko tartea izan zen, erreka eta errekaetako gainezka egin zuten, kalte material handiak eraginez; etxe eta soto askotan sartu zen euria, errepede mozketak izan ziren zuhaitzen erorketen ondorioz, eta beste hainbat azpiegitura erabilgaitz utzi zituzten eurite bortitzek. Gerora Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak bideratu zituen kaltetutako udalerriei laguntzera, baina aurreneko erantzuna herritarrena eta udalena izan zen; herritarrek auzolanean erantzun zieten euriteen ondorioei. Ataunen, Gaintzan, Lazkaon, Legorretan eta Zaldibian izan ziren kalteak.

Ataunen, harri, lohi eta hondakin ugari utzi zituen ureztatuta geratu ziren lekuetan. Kurtuiztik behera doan erreka Bidarteko zubia itxiarazi zuen, harritzak errepedean, erreka inguru guztiak lokatzak hartuta, eta zenbait errepede itxita. Gaintzan, erreka guztiek egin zuten gainezka, eta etxe zein baserrietan gainontzeko herrietako kalteak egon ez ziren arren, kalte handienak errepedeetan egon ziren, luitziak eraginda. Ordiziatik Gaintzarako errepede nagusia eta

baserrietako bideak itxita egon ziren. Lazkaon, estolderia sareko kainu-zuloek ere ezin izan zuten Enparandegi baserri aldeko errepedetik behera zihoan ur guztia irentsi, eta kaleak, errepedeak, parkeak eta zenbait garaje hartu zituen urak, horietan kalteak eraginda. Legorretako herrigunean arazorik ez zen izan, baina Esnaola auzorako bidean, San Migel auzoan, Ola auzoan eta Errekalde baserrian izan ziren kalteak.

Azkenik, Zaldibian, hainbat eremutan izan ziren kalteak. Arrese tabernaren eta Aztiriaga etxearen aurrean berehala egin zen ur-putzu handia, eta bai taberna zein inguruko behe-barru eta lurpeko garajeak urak hartu zituen. Elbarrena auzoko Lizarraga, Irastortza eta Bertuesa baserrien eta Gure txoko eta Biona etxeen inguruak, besteak beste, urak hartu zituen, baita auzo horretako industrialdeko hainbat pabiloi ere. Amundarain erreka zein Lazkaomendi aldetik datozen Izurrena, Mai-zerreka eta Igeldegi errekaetako eta Gaintza aldean sortzen den Apatzabal errekaetako eragin zituzten kalteak, ur eta zikin asko baitzekarten.

Metro pasako altuera

Aurregi auzoan, Berdillari, Loiola eta Urtesabel-Berri baserrietan ere une larriak pasatu zituzten,

Ekainaren 13ko gauean eurite mardula egin zuen. Ataunen, Gaintzan, Lazkaon, Legorretan eta Zaldibian izan ziren kalteak. Lehenengo erantzuna herritarrena izan zen; auzolanean aritu ziren.



Zaldibiako Unanubieta baserriko kalte materialak. IÑAKI GURRUTXAGA



Loretoki etxeko garbiketa, Zaldibian. IÑAKI GURRUTXAGA



Garaje eremu bat urez beteta, Lazkaon. AIMAR MAIZ

batez ere Etxaisko eta Antso-larats errekaetako emariaren ondorioz. Etxaisko erreka-zitortarak Arruegi auzoko goiko baserrietarako bidea itxiarazi zuen. Aiestaran-erreka auzoan, berriz, Unanubietako baserria izan zen kaltetuen. Amundarain errekaen ondoan dago, baina Lazkaomendi aldetik datorren Azkonobieta eta Unanieta erreka-zitortrek eragin zituzten kalterik handienak. Metro pasako altueran hartu zuen urak baserriko beheko solairuan. Resti pilotalekuan, eskola atarian eta areto futboleko kantxan ura eta lokatza nabarmenak izan ziren.

1,2 milioi euroko partida

Hurrengo goizean, euriteek utzitakoak garbitzea atera ziren kalera herritar asko. Auzolanean erantzun zuten herritarrek eta udalek ere deia zabaldu zuten. Ekainaren 17an, aldiz, kaltetutako udalerrietako alkateekin bildu ziren aldundiko diputatuak. Kalte materialen norainokoaren jarraipena egitea eta neurriak hartzea adostu zuten. Hiru lan eremu lehenetsi zituzten: errepedeak txukuntzea, kaltetutako enpresen kalteak ebaluatzea eta baserri bideetako kalteak kuantifikatzea. Informazio falta salatu zuten zenbait alkatek uholdeetatik hilabetera. Irailean iritsi zen ondorengo berria: aldundiak 1,2 milioi euroko partida onartu zuela kaltetutako udalerriei dirulaguntzak emateko.

Hiru aste lehenago

Maiatzaren 19ko eguerdian, aldiz, ia hilabete lehenago, Goierri garairako bidean eragin zituen uholdeak beste eurite batek. Legazpi eta Urretxu-Zumarraga aldean zein Ormaiztegi, Itsaso eta Gabiria partean erruz egin zuen euria; Alegia auzoan Santa Lutzi erreka gainezka egin zuen. Urak garajeak urez bete zituen, atarietara iritsiz, eta zenbait errepede itxi behar izan zituzten uholdeengatik zein urak eragindako luiziagatik. ●

Bidezahar, 7
Tel.: 943 03 75 27
20700 Zumarraga

Kale Nagusia, 24
Tel.: 943 73 17 98
20230 Legazpi

BELARDENDA

- Estetika
- Dietetika
- Produktu biologikoak

1988tik zuekin

- Sagardotegiak
- Upategiak
- Aireportuak
- Edozein motatako ekitaldiak

FILIP - TAXI
671 702 032
Ordizian eta Goierri osoan

PODOLOGIA ZENTROA

MIREN ALVAREZ JUARISTI

943 72 52 23
Iabeaga 31 · URRETXU
www.urratspodologia.eus



GO07 lineako autobus bat eta erabiltzaileak Beasaingo geltokian. IÑAKI GURRUTXAGA

Goierri-Donostia autobusa, martxan

● Apirilaren 28an jarri
zuen martxan GO07
linea aldundiak.

● Harrera onagatik,
ekainean zerbitzua
indartu zuten.

Laida Goiburu

GOIERRI— Apirilaren 28an jarri
zuen martxan Gipuzkoako Foru
Aldundiko Mugikortasuneko,
Turismoko eta Lurralde Antola-
ketako departamentuak GO07
Lurraldebuseko linea, Goierri
eta Donostia lotzen dituen.
Apirilean Azahara Dominguez

diputatuak azaldu zuenez, «Gipuzkoako herritarren zati handi baten aldarrikapen historikoari» erantzuten zion linea berriak.

«Ehunka pertsonaren mugikortasunean mugarri» izango zela aurreikusi zuten, eta hala izan zen neurri handi batean, harrera bikaina izan baitzuen, ordu jakin batzuetan jendea kanpoan

geratzeraino. Zumarragatik atera eta Beasainen, Ordizian eta Tolosan geldialdiak egin ondoren, Donostiara iristen da autobusa. Legazpi ibilbidetik kanpo gertzen zela ikusita, EH Bilduk mozioak aurkeztu zituen Urretxun, Zumarragan eta Legazpin bertan, autobusa Legazpitik abiatzeko eskatzeko. Mozio horiek ez ziren aurrera atera. Bai, ordea, Gipuzkoako Batzar Nagusietan egindako proposamena. Modu horretan, egun, astelehenetik ostiralera, zerbitzuko bi autobus Legazpitik ateratzen dira, beste bi hara iristen dira, eta asteburuetan joaneko eta itzulerako bana.

Linea indartu

Ekainean aldundiak jakinarazi zuen 16.000 bidaiari baino gehiago izan zituela zerbitzuak lehen asteetan. Irailean, berriz, aldundiak iragarri zuen GO07 linea indartuko zuela, erabilerari buruzko datuetan oinarrituta. Horrela, 06:05ean eta 07:05ean Legazpitik eta 08:15ean Zumarragatik abiatzen diren autobusek ohiko errefortzu zerbitzua izango zuten, eta itzultzeko, Donostiako 15:45eko, 18:45eko eta 20:45eko irteerak indartuko zituzten.

«Beharrezkoa izan den uneetan errefortzu puntualak» jarri ditu aldundiak, adibidez uztailan eta abuztuan. ●

Ganadurik ez abeltzaintza azoketan, gaitz baten ondorioz

GOIERRI— Urriaren 23an jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak: behien artean hedatzen ari zen dermatosi nodular gaitz kutsakorra gehiago ez hedatzeko prebentzio neurri gisa, abeltzaintza azokak debekatzea erabaki zuen. Hala, Goierri urte amaieran animaliekin egiten diren hainbat azokatan ez da animaliarik izan. Lehenengoa Zaldibiako Ardiki Eguna izan zen; ez zen ardilatxa mutur gorri eta mutur beltz, ahuntz azpigorri ez pottoka erakusketarik egon plazan. Hurrengoa Mutiloako Txerri Azoka izan zen; txerrikiak bai, baina txerririk gabeko azoka izan zen. Eta azkenik, Zegamako San Martin azokan ere izan zuen eragina; herriko abereen erakusketa eta sariak bertan behera geratu ziren.

Santa Lutzen ez zuen eraginik izan neurri horrek, azaroaren 30ean altxatu zuelako Jaurlaritzak, baina hegaztirik ez zen izan hegazti gripearen gaitz. ●LG

Goierri ere argindarrik gabe geratu da

GOIERRI— Apirilaren 28ko eguerdian, bat-batean, argindarra joan zen eskualdean. 12:30 aldera gertatu zen. Lantoki atarrietan, kalean, garraio zerbitzuetan, dendetan... jendea ikus zitekeen zer izan zitekeen galdezka. Orduan zabaldu zen Euskal Herriko, Espainiako eta Portugalgo hainbat eskualdetan izan zela argindar etenaldia. Iberiar Penintsulan eragin zuen. Zerbitzuak, teleko-

munikazioak eta garraioa gelditu zituen itzalaldiak.

Aurrekaririk gabeko gertakaria izan zen. Eusko Jaurlaritzak herritarrei «lasaitasuna» eskatu zien mezu baten bidez, eta 112 telefonoa larrialdietarako bakarrik erabiltzeko eskatu zuen, lineak ez kolapsatzeko.

14:20 aldera Gipuzkoako zenbait herritan argia itzultzen hasi zen. Goierri, bi ordu eta erdi

inguruko itzalaldia izan zen; 15:00etarako minutu gutxi falta zirenean argindarra itzuli zen. Adifek bertan behera utzi zituen tren zerbitzu guztiak egun horretan. 18:30erako Gipuzkoan energia horniduraren %88 berreskuratu zuten, Araban ia osorik, eta Bizkaian %78. Bingen Zupiria Segurtasun sailburuak adierazi zuen Iberiar penintsulako beste gune batzuetan baino azkarrago

berreskuratu zela «Frantziako Estatutik energia sartu» zelako.

Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek gauean agerraldia egin zuen, eta adierazi sare elektrikotik 12:33an hama bost gigawatt desagertu zirela bost segundoz, baina ez zutela hipotesirik baztertzeko.

Hiru astetara, Espainiako Gobernuak Red Eléctrica Española eta argindar konpainiei egotzi

zuen erantzukizuna; era berean, Red Eléctricak argindar konpainiei egotzi zien errua, eta argindar konpainiek Red Eléctricari.

Urrian, aldiz, Entso-e argindar garraiorako sarean kudeatzailen Europako sareak txostena argitaratu zuen, esanez tentsioa kontrolatzeko ezintasunak eragin zuela itzalaldia, baina oraindik azken txostena aurkeztu behar du, 2026ko lehen hiruhilekoan. ●LG



OTAIZABAL
aroztegia

Salbatore Auzoa, Izarraitz industrigunea. BEASAIN
Tel.: 943 160 684 Sakelakoa: 605 757 623
otaizabal@otaizabal.eus
www.otaizabal.eus



Antio
CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK

**Eraikuntzarako
IRTENBIDEAK**

Urola, 8 Pab. 21-22
20230 - Legazpi

943734574
606342357
606241258

www.antio.es
construccionesantio@antio.es

OBRAK ETA MANTENIMENDU
INDUSTRIALA

ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIOAK

BIRGAITZE ETA ERREFORMAK

OBRA ZIBILA

OBRA BEREZIAK

Goierri Barnetik etorkizunerako elkarlan sarea sortu dute

● Askotariko 34 eragilek egin dute bat etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

● 2020ko irailean abiatutako prozesuaren emaitza da sarea.

● Harreman motak «eraldatu» nahi dituzte.

L.Agirre/L.Goiburu

GOIERRI— Goierri beheko eragile publiko, pribatu, komunitario eta herritarrek indarrak batuz, Goierri Barnetik eskualdearen etorkizunerako elkarlan sarea sortu dute. Askotariko 34 eragilek bat egin dute etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta gobernantza sis-

tema berria egituratzeko. Tartean da GOIERRIKO HITZA egunkaria ere.

Urtarrilaren 22an, Mutiloako udaletxeko ganbaran egin zuten lankidetzaren hitzarmenaren sinadura ekitaldia. 34 eragileetako ordezkariak banan-banan hitzarmena sinatu zuten «Goierriren etorkizun berri bat irudikatzen duen mugarria» izatea nahi duten ekitaldian. Orain arteko harreman motak «eraldatu» nahi dituzte, «konektatu, eta ziurgabetasuna testuinguru honetan etorkin berriak eraiki».

2020ko irailean abiatu zen prozesuaren emaitza da lankidetzaren sarea. Lehen lana eskualdeko udal eragile, enpresa zein eragile komunitarioak «entzutea» izan zen, eskualdean egon zitezkeen «kezkak identifikatzeko» helburuarekin. Sinatzaileen esanetan, «intuizio eta konbentzimendu» batekin abiatu zuten prozesua: «Bizitzaren ari garen garaiaren konplexutasunari» erantzun- goko

dion harreman sistema berri bat beharko zela, «Goierri izan duen izaera kolaboratzaileari erantzunez». Hiru erronka zehaztu zituzten: energia, landa garapena eta zaintza.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenak lagundu du diruz prozesua. Hitzarmenak finantzazio konpromisoak ere jasotzen ditu, izaera desberdina duten eragileen ekarpena aurreikusiz. Udalek finantziarioaren %50 hartu dute beren gain eta enpresa sektoreak %25. Gainerako %25 bestelako finantzazio iturrietatik lortzea aurreikusten dute.

Lidergoa, Goiekirena

Bederatzi hilabetera, irailaren 16an, ekitaldi bat egin zuten Goiekiren Ordiziako egoitzan. Bertan aurkeztu zuten hilabete horietan egindako lana. Bulego teknikoaren lidergo-ardura Goiekik izango du, eta honela banatu dira gainontzeko rolak: koordinazio orokorra Goiekik eramango du; landa garapenean erreferentzia Goimen izango da; energia arloan Goienerrrek jardungo du; Biziolak komunitatea aktibatze eta eraldatzeko ardura hartuko du; Caritasek errealitate ezberdinen ahotsa islatu eta zubi-lanak egingo ditu; eta azkenik, GOIERRIKO HITZA eta Goierri Irrati Telebistak eraldaketarako narratiba berriak sortuko dituzte. ●

Elkarlan sareko ordezkariak, irailean, Goiekin. HITZA

«Sendotasuna» eta «indarra» islatu ditu Eskola Txikien Festak

EZKIO— Ezkiora eraman zuen ekainean Gipuzkoako Eskola Txikien Festa Ezkio-Itsasoko herri eskolak. Adunari lekukoa hartuta, 2024. urteko festa antolatzen Ganbara guraso elkarteak, Adunako guraso elkartearen laguntzarekin. Ia urte osoko lanketa izan zen eta herri guztia inplikatu zen antolakuntzan. Amaia Dorronsoro Ezkio-Itsasoko herri eskolako zuzendariak nabarmendu zuen «eskola txikietako jendea asko inplikatu» dela, eta jende asko espero zutela Ezkio festan ere. Eta hala izan zen.

Ezkio-Itsasoko eskolako arduradunek lekukoa pasatu zioten Zizurkilgo Mendigain Eskolako ordezkariari, 2026an haiek izango baitira Eskola Txikien Festa hartuko dutenak. ●LG/LE

Urbiako fondak mendeurrena bete du, baina ospakizunik gabe

GOIERRI— 2025eko abuztuaren 30ean mendeurrena bete zuen Urbiako fondak. Ospakizun eguna egitea aurreikusitako bazuten ere, ez zuten egin, abuztuaren 17an itxi zutelako. Uztailaren 31n San Inazio eguna ospatu zuten Urbiako zelaian, fondak eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuegoak antolatuta ohi bezala, eta mendizale ugari inguratu ziren gozatzera. Abuztuaren 13an, ordea, arduradun berri bila zebiltzala jakinarazi zuten, eta hala, maizter berriak aurkitu arte ez zutela berriro irekiko. ●LG

‘Txantxangorri’ artzaina hilik aurkitu dute Artzanburu inguruan

GABIRIA— Udazkeneko lehen elurrekin batera iritsi zen albisteak, azaroaren 21ean: 77 urteko Jose Luis Uribetxeberria *Txantxangorri* artzain gabiriarra bilatzeko lanei ekin zien egun horretan Ertzaintzak. Aurreko egunetik zegoen desagertuta, ustez artaldearekin Urbiako zelaietatik gertu dagoen bidea batetik jaitsi behar zuela eta jaitsi ez zela-eta.

Egun horretan bertan, gauean jakinarazi zuen Ertzaintzak artaldea eta txakurra aurkitu zituztela airez, baina artzaina ez. Bilaketa lanak eten zituzten orduan, eta hurrengo egunean, azaroaren 22an hilik aurkitu zuten *Txantxangorri*, aurreko egunean txakurra aurkitu zuten tokitik gertu, Artzanburu inguruan. Albisteak atsekabea sortu zuen Goierri, Uribetxeberria oso ezaguna baitzen. Azaroaren 26an egin zioten azken agurra Gabirian.

Ezbeharra Panticosan

Elurak utzi ditu hainbat susto eta atsekabe Goierri 2025ean. Urte amaieran ere, Goierritik eta Euskal Herritik kanpo, bi ordiziarrek Panticosan (Huesca, Espainia) ezbehar bat jasan zuten. Abenduaren 29an, Brazatoko goi aintziren inguruan elur-jausi baten ondorioak jasan zituen eskiatzaile talde batek, eta hiru hil egin ziren: Huescako bikote bat eta Irungo gizon- nezko bat. Elur-jausiaren ondorioak jasan zituzten eskiatzaileetako bi ordiziarrek dira, aita-alabak. Aita onik zegoen, eta alaba hipotermiak jota ospitalera eraman zuten. Onik atera ziren biak. ●LG





Legorretako Udala

www.legorreta.eus

LegorretAPP | Legorretako Udala | @LegorretaUdala





NEKOTZ

ALBAITARITZA KLINIKA



Filipinar uharteak, 5
ZUMARRAGA
Tel.: 943 72 49 26

nekotz.com

ZUBIKOETA, S.L.

GASOLINDEGIA



BEROGAILUENTZAT

GASOLEOA

AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK

Zubikoeta Industrialdea, 1
Tel.: 943 180 486
Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es
ATAUN



Osasun Saileko eta Osakidetza ordezkariek azaroan, obren hasiera aurkezten. ASIER ZALDUA

Bloke kirurgiko berria, 2028ko amaierarako

● Aurrekontua 75 milioi eurokoa da. 2028ko abendurako prest egotea aurreikusi dute.

● Pasabideak izango ditu egungo eraikinarekin konektatzeko.

Asier Zaldúa

ZUMARRAGA— Osakidetza Zumarragako Ospitaleko bloke kirurgiko berriaren obra hasi du. Eraikinak bederatzi ebakuntza gela (egun sei daude), minaren unitatea, hemodialisirako hemezortzi postu, endoskopiatarako hamalau postu eta esterilizazio gela izango ditu, besteak beste. Zerbitzu batzuk eraikin berrian

emango direnez, egungo eraikinetan emango direnak handitu egin ahal izango dira. Larrialdietakoa, adibidez. Eraikin berriaren aurrekontua 75 milioi eurokoa da eta 2028ko abendurako prest egotea espero da.

Bloke kirurgiko berria ospitalearen fatxada nagusiaren aurrean eraikiko da. Pasabideak izango ditu, egungo eraikinarekin konektatzeko. 17.000 metro koadroko zabalera izango du, zortzi solairutan banatuta. Asistentziara bideratutako bost solairuek 10.000 metro izango dituzte guztira: 2.000 metro bakoitzak. Gainerako hiru solairuak aparkalekurako eta eraikineko instalazio teknikoetarako erabiliko dira.

-1 eta -2 solairuetan eraikinaren instalazio tekniko nagusiak eta 60 aparkaleku izango dira. Beheko solairuan hemezortzi hemodialisi postu, hiru kontsulta, erizaintza-

ko kontrola, 200 lagunentzako ekitaldi aretoa, 150 metro koadroko kafetegia, arreta gunea eta itxarongela izango dira.

Lehen solairuan minaren unitatea (bi kontsulta eta tratamendu gela), eguneko ospitale medikoa (zortzi postu) eta lau endoskopia gela (hamalau postuarekin) egokituko dituzte. Bigarren solairuan lau ebakuntza gela, eguneko ospitale kirurgikoa (22 postu) eta erizaintzako kontrola izango dira. Hirugarren solairuan esterilizazio gela berria egongo da.

Beste bost ebakuntza gela Laugarren solairuan bost ebakuntza gela, anestesia osteko sendaketarako hamalau postu eta pazienteak prestatzeko gunea egongo dira. Bukatzeko, bosgarren solairuan instalazioak egongo dira (beroketa sistema eta aire girotua, besteak beste).●

Eskola segregazioa salatzen elkartu dira Ordiziako Urdaneta eskolan

ORDIZIA— Euskal Eskola Publikoaz Harro Topaguneak bilera egin zuen urriaren 18an Ordiziako Urdaneta eskolan, *Euskal Eskola Publikoaz Harro, segregazioaren kontra* lelopean. Segregazioaren harira Ordiziako eskola publikoaren borroka izan zuten hizpide, beste hainbat eskolatan gertatzen denarekin batera. Arartekoaren azken ebazpenaz ere mintzatu ziren; urrian, atzera bota zituen organo horrek Hezkuntza Sailak Ordiziako eskola segregazioa konpontzeko aurkeztutako neurriak, legerik eta gomendiorik bete ez zela esanez. Azken urteotan bi ebazpen atara ditu Arartekoak neurri zuzentzaileak eskatuz, baina Hezkuntza Sailak «araudia errespetatzen» duela erantzun du. Euskal Eskola Publikoaz Harro argi du: «Ekintza politiko ezak betikotu egiten ditu udalerriko haurren desoreka eta zaurgarritasuna».

Lizarrustiko parketxea berritu du aldundiak

ATAUN— Otsailean Lizarrustiko parketxea ireki zuten berriz ere. Aldundiak instalazioak berritu zituen, eta erakusketa berritu batekin ireki zuten. 201.106 euroko inbertsioa izan zen. Ordezkariek irekieran esan zuten, urtero 2.500 pertsona inguru hurbiltzen dira Lizarrustira.

Magnitude txikiko 28 lurrikara neurtu dituzte Ataunen

ATAUN— Urriaren 24ko goizaldean aktibitate sismiko handikoa izan zen Ataunen. Espainiako Institutu Geografikoak magnitude txikiko 28 lurrikara neurtu zituen, gehienak Ataungo Domoaren barrenean. Richter eskalan 1.5 eta 2.5 artekoak izan ziren, horietako lau 2tik gorakoak.



Herrien arteko saretzea indartzeko, Zaldibiara

GOIERRI— Goierriko Koordinadora Feministak Beasain, Lazkao eta Ordizian txandaka deitu izan ditu Martxoaren 8ko manifestazioak. 2025ean, aldiz, Zaldibiara lekualdatu zuten Goierri beheko mobilizazio nagusia, «erosotasunetik irten, inertziaz apurtu eta herrien arteko saretzea indartzeko». LAIDA GOIBURU

inausti hortz klinika
1998tik

ZERBITZU BERRIA
Kirol Odontologia

Joan Iturralde 3, behea
20200 Beasain
943 88 46 28

HINE

+50 urteko esperientzia
sektore hidraulikoan
Orain, salmenta osteko
zerbitzuan ere zure ondoan

Po. Ind. Altuna nº 6010, Pab.7 20212 Olaberria (Gipuzkoa)
☎ 943 162 020 ✉ es-hre@hinegroup.com

Bide aldaketak eta zundaketak AHTaren bueltan

● **Aralar zeharkatuko lukeen hirugarren bideak indarra hartu du.**

Laida Goiburua

GOIERRI— Abiadura Handiko Trenaren proiektua luze doa. 2025eko hasieran, *euskal* Y-aren lotunea Nafarroarekin Ezkioetik ala Gasteiztik izan beharko lukeen zen galdera nagusia. Hori zehaztu gabe, otsailean jakinarazi zuen Jose Antonio Santano Espainiako Estatuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko idazkariak Aralarren aldi baterako desjabetzeak egiteko aukera planteatzen ari zirela, «arazoak» zituztelako lursailetan sartzeko, «publiko zein pribatu». Era berean, alderdiek beren interesen alde egiten jarraitzen zuten; EAJk Ezkioko lotunea lehenesten zuen, PSE-EEK, berriaz, Gasteizen aldeko apustua

berresten zuen. Martxoan, Espainiako Sustapen Ministerioak adierazi zuen «zalantzak» zituela Ezkioko lotunearekin.

Apirileko berria hau izan zen: Espainiako Boletín Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, Itsason hainbat lursailen epe baterako desjabetzeak aurreikusi zituen Adifek, jada eginda dagoen azpiegituran falta diren hainbat lan burutzeko.

Urrian, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldu nagusiak salatu zuen Espainiako Gobernuak ez zituela hasi Aralarren aurreikusitako azterketak, eta Madrilek berretsi zuen ez zituela egingo, baztertu egin zuela trena Aralar azpitik igarotzea. Hirugarren bide bat jarri zuten mahai gainean gero; Aralar zeharkatu ordez, inguratu egingo luke.

Hedabideetan zabalduetakoren arabera, hori hobetsiko luke Espainiako Gobernuak AHTa Ezkiora lotzeko. Beasainen, Idia-

zabalen eta Olaberrian –ikusteke Ataungo lurretan egin beharko diren ala ez– hirugarren alternatibako zundaketak egiten hasiko zirela baieztatu zuen Jose Antonio Santanok. Udalerrri horietako alkateek kezka agertu zuten informazio argirik ez zutelako, eta hirugarren alternatiba mahai gainean zegoen bitartean, udalerrietan oraindik bigarren alternatibaren zundaketetako baimenekin segitzen zutelako.

Ez laguntzeko deia

Azken bide horren aukera zabaldu ondoren, azaroaren 11n, prentsurrekoa egin zuen Stop Zundaketak-AHTrik ez! ekimenak Idiazabalen. Udalei eskatu zieten zundaketetan ez laguntzeko, hirugarren bideak ere ingurumen kalte larriak eragingo lituzkeela ohartarazi eta mendi martxa iragarri zuten. Azaroaren 23an egin zuten martxa Idiazabal eta Olaberria artean. ●



Stop Zundaketak-AHTrik ez! ekimenaren prentsurrekoa Idiazabalen. LG

Itsasok gertuago dauka tokiko entitate txiki izateko aukera

ITSASO— Itsasok gertuago dauka tokiko entitate txiki izateko aukera, urriaren 8an Gipuzkoako Batzar Nagusietan egin dako osoko bilkuran aho batez hartu baitzuten aintzakotzat talde guztiek foru arauaren (2/2003ko martxoaren 17ko udal-barrutiak erregulatzen dituen foru-araua) aldaketaren proposamena. Gipuzkoako EH Bilduk eman zuen proposamenaren bidearen berri: EAJrekin adostasuna lortuta, elkarrekin foru arauaren aldaketaren proposamena Batzar Nagusietan aurkeztuko zuten. Foru arauaren proposamenaren aintzatespena bozkatu eta guztiek aldeko botoa eman ondoren, oraindik bere bidea egin beharko du proposamenak Batzar Nagusietan. ●LG

Aralarren kudeaketarako 2035. urtera arteko akordioa sinatu dute

ORDIZIA— Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Enirio-Aralar mankomunitateak Aralarren kudeaketarako 2035. urtera arteko akordioa sinatu zuten maiatzaren 14an Ordiziako udaletxean. Plan orokorrak hainbat jardura egitea jasotzen du, baita datozen 10 urteetarako finantzaketaren oinarriak, mankomunitatearen egitura eta funtzionamendua ere. Xabier Arruti Lurralde Oreak Berdeko diputatuak jakinarazi zuen «2019az geroztik blokeatuta zeuden harremanak desblokeatzeko» jarri zutela helburu legegaldi hasieran, eta «lan eta elkarbizitza handiko hilabeteek merezi izan» zutela. Planak Aralarren lehentasuna duten proposamenak



Xabier Arruti diputatua eta Adur Ezenarro alkatea, sinadura saioan. LG

ezartzen ditu, «natur eta kultur ondarearekin eta eremu horren erabilerarekin» lotuta. Bi helburu nagusi ditu: «Natur eta kultur ondarea babestea eta zaintzea, eta

artzaintza indartzea era mendiko abereen presentzia orekatua bermatzeko».

Finantzazioari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ur-

tero 350.000 euroko ekarpena egiteko eta inbertsioak egiteko konpromisoa hartu du. Aldiz, Enirio-Aralar mankomunitateak, erakundearen egitura eta langile kostuak bere gain hartzeaz gain, plan desberdinak gauzatzeko «baliabide nahikotasuna» bermatzeko konpromisoa hartu du. Adur Ezenarro Ordiziako alkatea nabarmendu zuen «marko orokor bat» dela, «Enirio-Aralarko lur guztiak hartuko dituen, eta bertan erabilera, jardura, eremu eta babeserako gune guztiak aintzat hartuko dituen». Mendiko artzaintzaren etorkizuna bermatzeko «ezinbestekotzat» jo zuen: «Urratsak egin beharko ditugula baldintzak hobetuz. Artzaintzari

zor diogu Enirio-Aralarren gaur egungo paisaia hein handi batean, eta baita ere txertatu beharra daude ingurumen, kultur eta natur balioa duten gainerako gai guztiekin».

Askotariko erantzunak

Enba sindikatuarentzat «positiboa» da akordioa, «tirabiren amaiera» irudikatzen duelako, baina edukiz «eskaxa». Aralar Bizirik eta Landarlan planaren kontra agertu dira eta «ardurak» dituzten EAJ eta EH Bilduri «eztabaidatu gabe eta partaidetza prozesurik gabe» sinatu izana leporatu diete. «Abeltzaintzak natur kontserbazioaren gainetik lehentasuna» duela diote. ●IG

Lorea 685 762 221

ZEURE ETXEA MARGOTZEN DUGU

Goierrri bus

943 72 52 50 info@goierribus.eus www.goierribus.eus

ARRAINKI

ARRAINAK ETA ITSASKIAK

Oriamendi, 24
Tel.: 943 160 331
BEASAIN

Ordiziako emakumezko zinegotziak elkartuta, espazio seguruagoak eskatzeko

ORDIZIA— Azaroaren 25aren tes-
tinguruan, Eudelek Gipuzkoa,
Araba eta Bizkaiko udal guztietako
emakumezko hautetsiei egin-
dako azterketa baten ondorioen
datua argitaratu zuen: 150 alkate
eta zinegotzi emakumeri eginda-
ko barne inkesta baten arabera,
%60ak indarkeria matxista —fi-
sikoa edo ahozkoa, psikologikoa
edo sinbolikoa— jasan edo iku-

si du beren agintaldian. Lehen
urratsa izan zen udal bakoitzak
akordio bat onartzea. Ordizian,
azaroaren 27ko udalbatzan tal-
de politiko guztietako emakume
zinegotziek mozioa aurkeztu eta
aho batez onartu zuten, espazio
politiko seguruagoak, berdin-
tasunezkoagoak eta indarkeria
sexistarik gabekoak bultzatzeko
helburuarekin. Eudelek bultza-

Larrosain Gune Sozialista ireki dute Legazpin

LEGAZPI— Kontseilu Sozialistak
egoitza berria du Goierrin: Legaz-
piko Larrosain Gune Sozialista.
Eskualdeko bigarren egoitza da;
Beasaingo Ezkiagan dago zentroa,
eta Legazpikoa «hazkunde proze-
suan» kokatu dute. Inaugurazioa
urrian egin zuten. Jardueretako
bat oinarritzko gaien bilgune eta
banaketa puntu izatea da.

Bizikidetza taldea publikoki aurkeztu dute Urretxun

URRETXU— Euskal Herrian azken
mende erdian izan diren afera so-
zio-politikoaren ondorioak bidera-
tze aldera, Urretxun bizikidetza
lantzeko foroa aurkeztu zuten
martxoan. Hiru urtean aktiboki
eta maiztasun konstantez landu
dute bizikidetzaren eta elkarriz-
ketaren eremua. Ekimena sendo-
tzen eta lantzen jarraituko dute.

Oiangualde Stop ekimena sortu dute Ordizian

ORDIZIA— Apirilean Oiangual-
deko etxebizitzaren proiektuari
hasierako onespina eman zion
udalbatzak. Hamarnaka mobi-
lizazio egin ditu horren harira
sortutako Oiangualde Stop eki-
menak, proiektua geratzeko eska-
tuz —urgentziazko mozioa eta ale-
gazioak tarteko— eta horretarako
«borondate politiko» exijituz.

Goierritarren izendapen ugari politikagintzan

L. Goiburu

GOIERRI— Izendapen berriak
eta kargu uzteak izan dituzte
2025ean ere hainbat goierri-
tarrek, tokiko, lurraldeko zein
nazio mailako politikagintzan.
Martxoan, Zelai Amenabarro
legorretarra Gipuzkoako EH Bil-
duren Politika Instituzionaleko
arduradun izendatu zuten, bilki-
deen %96,12aren babesa jasota.
Apirilean, berriz, Iker Estensoro
lazkaotarra Gipuzkoako Foru
Aldundiko diputatu nagusi Eider
Mendozaren kabineteburu be-

rria izango zela jakinarazi zuen
aldundiak; aurretik ere Mendoza-
ren lantaldean zegoen, Sustapen
Ekonomikoko zuzendari nagusia
baitzen. Ekainean, aldaketa izan
zen Aramako Udalean; Iker Irri-
barria izendatu zuten Aramako
alkate, Aritz Insaustik kargua utzi
ondoren.

Irailean, Eraitz Saez de Egilaz
beasaindarra EH Bilduren Eusko
Legebiltzarreko koordinatzaile
izendatu zuen koalizioak, «be-
launaldi berriek ardura garran-
tzitsuak bere gain hartzeko apus-
tua» berretsita. EH Bildun etorri

zen beste aldaketa bat gero, irai-
lean, baina Legazpin; Edurne
Gonzalez Elorzak Gipuzkoako
Batzar Nagusietako lantaldera
egin zuen salto —ez du zinegotzi
kargua utzi— eta Ibon Altzelaik
hartu zuen tokiko taldearen gi-
daritza, Legazpiko EH Bilduren
arduradun instituzional titulua
hartuta.

Azaroan, Joseba Aranburu Or-
diziako EAJren udal taldearen
bozeramailea Gipuzkoako Foru
Aldundiko Landa Garapenerako
zuzendari izendatu zuten, bai-
na esan zuenez, «buru-belarri»

jarraituko du «Ordiziaren alde
lanean». Arantxa Ariztimuño ze-
gamarraren kargua hartu zuen
Aranburuk, eta Mendi eta Natu-
ra-Ondareko zuzendari izatera
pasatu zen Ariztimuño, azken
kargu hori Koldobike Olabide le-
gazpiarrak utzi ondoren.

Egun batzuetara, azaroan ere,
Ana Maria Sanchez Ordiziako
PSE-EEren zinegotzia Kontsu-
mobide Kontsumoko Euskal
Institutuko zuzendari izendatu
zuen Eusko Jaurlaritzak, Tontxu
Rodríguez ordez.

Abenduaren erdialdean beste

aldaketa bat egin zuen EH Bilduk,
Zumarragako Udalean: Aimar Al-
berdik Josu Aztiria ordezkatuko
du zinegotzi karguan. Aztiriak
karguari uko egin dio, legebiltzar-
kide lanarekin bateraezina zaiola-
ko. Abenduaren 18ko osoko bilku-
ra izan zen Aztiriaren azkena; EH
Bilduko kideak osoko bilkurara
joan ziren eta amaieran lore sorta
oparitu zioten. EAJko Josu Idigo-
rasek ere Aztiria goraiatu zuen
azken bilkura hartan, eta Mikel
Serrano alkateak zortetik onena
opa zion eta eskerrak eman ziz-
kion egindako ekarpenagatik. ●

Pepe Mujika Beasaingo seme kuttun izendatu dute

BEASAIN— Maiatzaren 13an
hil zen Pepe Mujika Uruguai-
ko presidente ohia. Horren harira,
maiatzaren 30ean Pepe Mujika
herriko seme kuttun izendatzea
onartu zuen Beasaingo udalbat-
zak. Elkarrekin Podemosek
aurkeztu zuen proposamena,
Mujikak Beasainekin zuen lotu-
ra familiarragatik, eta bere ibil-

bide politiko, humanoa, justizia
sozial, elkartasun eta duintasu-
naren balio unibertsalak aitortze-
ko. Udal talde guztien ba-
besa jaso zuen proposamenak,
eta herriko kale bat edo plaza
bat hari eskaintzea gehitu zuen
EH Bilduk. 2015ean Beasaingo
Astigarreta auzoko Muxika ba-
serria bisitatu zuen Mujikak,
Mikel Prietok egindako arbola
genealogikoaren arabera haren
jatorria han baitago. Bertako
Pedro Alustizarekin eta Maria
Rosario Mujikarekin egon zen,
baita Ixi Mujikarekin eta Agustín
Urretabizkaiarekin ere. ●LG

Xabier Zabaleri hirugarren gradua kendu diote

ZUMARRAGA— Xabier Zabalo
zumarragarrari hirugarren gra-
dua kendu zioten martxoan.
Otsailaren 21ean Eusko Jaur-
laritzak, 2024ko abenduaren
20an Zaballako espetxe zaintza-
ko juntak proposatuta, Xabier
Zabalo presoarentzako hiru-
garren gradua onartu zuen.
Martxoaren 3an, Audientzia Na-

zionaleko Fiskaltzak helegitea
aurkeztu zuen erabaki horren
aurka eta Zumarragako presoak
egun horretan bertan espetxera
itzuli behar izan zuen bigarren
gradurako erregresioa jasanda.
Azken urtebetean ez zen horre-
lakorik gertatu.

Gradu erregresioa salatzeko,
mobilizazioak egin zituzten Urre-
txuko kaleetan ehunka lagunek.

Baldintzapeko askatasuna

Ainhua Barbarin urretxuarra bal-
dintzapeko askatasunean geratu
zen ekainean. Barbarinek 23 urte
zeramatzen preso, eta 2022tik hi-

rugarren gradua onartu eta kendu
zioten bi aldiz. 2024ko otsailean
berriro hirugarren gradua ezarri
zioten Barbarini eta iazko ekaine-
tik baliabide telematikoen bidez
bete du espetxe zigorra.

Ekainean ere, Espainiako Au-
zitegi Nazionalen ongietorrien
aiziko epaiketa zen egitekoa.
Baina akusatuen defentsak,
fiskaltzak eta akusazio partiku-
larrek —PP, Dignidad y Justicia
eta AVT— akordio bat erdietsi
zuten, eta akusatuek ez dute
espetxera joan beharko. Kai Saez
de Egilaz beasaindarra dago
tartean. ●LG

LONTXO
ARRANDEGIA

Martina Maiz, 3 • 20200 • Beasain

678 79 76 04

Jaso itzazu gure eskaintzak Whatsapp-ez

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 08:30 - 13:30

Egindako eskaerak 15:00ak arte jasotzeko aukera

Etkez etxeko banaketa eguerdi eta arratsaldean

lontxo2021@gmail.com



LANDU
PRECISION MACHINING

Pol. Basozabal 3 • Olaberria
+34 943 882 152

www.landu.es



Palestinaren alde, lanuztea

● **Industria arloko enpresa handietan eta administrazio publikoan izan zuen jarraipenik handiena.**

● **Arratsaldean elkarretaratzeak egin ziren herriz herri.**

Erredakzioa

GOIERRI— Urriaren 15ean LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, CGT, Etxalde, EHNE-Nafarroa, Solidari eta Hiru sindikatuek hiru orduko lanuzte orokorra deitu zuten Israelgo estatu sionistaren aurka eta palestinar herriaren alde. Hezkuntzan, berriz, greba orokorra zegoen deituta. Goierrin, batez ere industria arloko enpresa handietan eta administrazio publikoan izan zuen jarraipenik handiena lanuzteak. Hego Euskal Herriko hiriburuetan izan ziren

lanuzteari lotutako mobilizazio nagusiak, eta hara joateko deia egin zuten sindikatuek; Donostiako manifestazioan, deitzaileen arabera, 18.000 lagun elkartu ziren. Baina eskualde mailan ere izan ziren elkarretaratzeak.

Industrian, Beasaingo CAFeko langileen %71k eman zion baiezkua lanuzteari, eta batzordeak salatu zuen enpresak ez lukeela parte hartu beharko «giza eskubideak urratzen dituen proiektuetan». Goizaldeko deialdian, 03:00etatik 06:00etara, Palestinako banderak jartzen ari zirenean Ertzaintzak bost delegatu identifikatu zituela salatu dute CAFeko LABeko ordezkariak. Indarren, Itsasondoko eta Idiazabalgo Jason, Olaberriko Arce-lorren, Beasaingo Guerra Hermanosen, Laulagunen eta Ikaslanen, eta Zumarragako eta Legazpiko industriaguneetan egin zituzten protestak, besteak beste.

Goierriko hainbat udaletako langileek ere bat egin zuten lanuzteekin, eta udaletxe aurretan elkartu ziren protestara. Horrek



Itsasondoko Jasoko langileak lantegiaren aurrean urriaren 15eko lanuzteko elkarretaratzean. AIMAR MAIZ

eragina izan zuen udal zerbitzuetan: kiroldegietan, liburategietan edota brigadetan. Ordizian, asteazkeneko azokako postuak ostegunean jaso zituzten langileek lanuztearekin bat egin ondoren. Zumarragako Ospitalean elkarretaratzea egin zuten langileek.

ELA, bere aldetik

ELA sindikatuak bere aldetik egin zuen deialdia, lau orduko lanuztearekin, eta bere aldetik egin zituen mobilizazioak ere. Goierrin bi elkarretaratze deitu zituen:

Beasaingo Loinazko San Martin plazan eta Legazpiko Euskal Herria plazan, eta «Israeli erabateko boikota ezartzea funtsezkotzat» jo zuten.

Greba orokorra hezkuntzan

Hezkuntzan greba orokorra zegoen deituta. LABen datuen arabera, hezkuntza publikoan eta ikastoletan «jarraipena nagusia» izan zen, «eta ia ikastetxe guztietako jangela ixteko iragarpena egin» zen. Besteak beste, Urretxu-Zumarraga ikastolan, lizeoan,

UGLen eta Joxe Mari Iparragirre institutuan greba egin zuten, baita UZ udal euskaltegian ere.

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta, arratsaldean elkarretaratze zaratsak egin zituzten herriz herri. Horrekin bat eginez, zenbait herritan, hala nola Ordizian eta Urretxu-Zumarragan, merkatariek eta ostalariek 19:00etatik 22:00etara lanuztea egiteko deialdia izan zuten. Euskal Herrian 120 mobilizazio baino gehiago egin ziren herri eta auzoetan. ●

Amiantoaren biktimentzako konpentsazioak aktibatu dituzte

GOIERRI— Espainiako Gobernuak amiantoaren biktimek konpentsazio ekonomikoa jaso ahal izateko neurria bideratu du, Ministroen Kontseiluak argi berdea eman baitio amiantoarekiko esposizioaren biktimei osasunean eragindako kalteen ondoriozko

kalte-ordaina aitortzeko prozedurari. Pedro Sanchezen Gobernuak Errege Dekretu bat onartu zuen ekainean, amiantoaren biktimei konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzeko «bal-dintzak eta prozedura» ezartzen dituen. Zabaldutako informazioaren arabera, biktima horiek kalte-ordaina jasoko dute ordainketa bakar baten bidez. Jasoko duten zenbateko ekonomikoa aldatu egingo da amiantoarekiko esposizioaren ondorioz jasandako afekzioen arabera, Gizarteratze,

Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministeriotik jakinarazi dutenez. Asviame elkarteak gogorarazi du oraindik urrats garrantzitsuak falta direla kalte-ordain sistema justu eta unibertsala lortzeko. Jon Garcia Asviameko bozeramaileak esan duenez, borrokaren helburuetako bat betetzen den arren, sentimendua «gazi-gozoa» da, kalte-ordainak «baxuak» direlako eta «kaltetuetako askok epaitegietan zeharkaldi luze bat egin beharko dutelako konpentsazio handiagoa lortzeko». ●AV

Metal 78 enpresa Zumarragan, Telleriaren pabiloia Urretxun

ZUMARRAGA-URRETXU— Metal 78 enpresak lantegia irekiko du Zumarragan, ArcelorMittal zegoen tokian. Obrak udaberrian hasi zituzten, eta 2026 honetan martxan jartzea aurreikusi dute. 40 laguni lana emango die. Metal 78k autoetako katalizatzaileak birziklatzen ditu. Hiru metal preziatu berreskuratzen ditu: platinoa, paladioa eta erro-

dioa. Apirilean aurkeztu zuten egitasmoa.

Telleria enpresa, aldiz, Zumarragako Argixao industrialdeko pabiloi ezberdinetan sakabatatuta dago, eta 7.000 metro koadroko pabiloia egin du Urretxu sarreran, «erosoago eta seguruago lan egin ahal izateko eta enpresari hazteko aukera emateko». ●AZ

Goierrialdea
autobusak

Mota guztietako bidaia

Tel.: 943885969
info@goierrialdea.eus
Gudugarreta auzoa
BEASAIN

www.goierrialdea.eus

Ataungo Udala

943180011

ataun.eus
ataunturismoa.eus

Loinaz KAFEAK

WEBGUNE BERRIA!

www.cafesloinaz.com

San Inazio, 14 Beasain
943.885128

Zubierreka industrigunea 53, Lazkao

Lorpenak eta errekorrak handienentzat

● **CAFek, Ampok edota Irizarrek mugarriak ezarri dituzte 2025ean.**

Laida Goiburu

GOIERRI— Goierriko industria arloko enpresa handienek 2025. urtea aurreko urteko irabazien berri emanez hasi zuten. CAFek hazkunde nabarmena izan zuen 2024an, bai mozkinetan, bai salmentetan. 103 milioi euro garbi irabazi zituen, %16 gehiago, eta 4.212 milioi fakturatu zituen, %10etik gorako igoeraren ondoren. 2025 hasieran, eskaera-zorua errekorrean zegoen, 14.695 milioitan, %3ko igoeraren ondoren, 2024an jasotako 4.707 mi-

lioiko enkarguengatik, nahiz eta lan-karga berriaren sarrera %1 murriztu zen 2023arekin alderatuta. 2025eko lehen sehirekoan 73 milioiko irabazi lortu zuen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta %40 gehiago. Eta lehen bederatzi hilabeteen irakurketa ere positiboa izan da; 3.165 milioi euroko salmentak erregistratu ditu, iazko aldi berarekin alderatuta %8ko igoera.

Ampok apirilean jakinarazi zuen 2024an bere historiako fakturazio maila handiena lortu zuela bigarren urtez jarraian. «258 milioi euroko zifra errekorre» iritsi zen Idiazabalgo kooperatiba, 2023arekin alderatuta «%23 hazita». Azaroan ospatutako Euskal Enpresaren Gauda 2024 ekitaldiaren aitzakian, Ampo

Kooperatibak banatu zituzten lau sarietako bat eraman zuen: nazioartekotzeari erreferentzia egiten dion Made in Euskadi saria, hain zuzen ere.

Mugarria Irizarrentzat

Irizarrek ere kontratuak lotzen jardun du 2025a. Apirilean, mugarririk historikoa lortu zuen Irizar i6S Efficient Hidrogenoarekin;

autobusak 2.500 kilometro egin zituen Ormaiztegui eta Briançon (Frantzia) artean, 900 kilometro autonomia erdietsiz. «Mugikortasun iraunkorrean aitzindari gisa dugun posizioa indartzeaz gain, Europa osoan teknologia garbiak integratzeko aukera berriak ere irekitzen ditu», adierazi zuen Javier Goikoetxea Irizarreko esportazio zuzendariak. ●



Irizar i6S Efficient Hidrogeno autobusa. HITZA

3.400 milioi eurora irits daitekeen 'mendeko kontratua' lortu du CAFek Belgikan

BEASAIN— Belgikako Estatu Kontseiluak argi berdea eman dio Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) enpresari herrialdeko tren-flotaren erdia berritzeko kontratuan. Irailean, epaitegiak behin betiko baztertu zuen Alstomek aurkeztutako azken errekurtoa, Siemens-en aurrekoa bezala, eta horrela desegin zituen akordioa itxeko zeuden azken oztopo legalak.

Erabaki horrekin, SNCB Belgikako tren-operadore publikoak

CAF izendatu du behin betiko bazkide estrategiko, Europako azken urteetako tren-azpiegitura proiektu handienetako batean. Kontratuaren balioa hasiera batean 1.695 milioi eurokoa izango da, baina azken zenbatekoa 3.400 milioira igo liteke, tren-unitate gehiagoren eskaeraren arabera. Proiektuak 500 tren automotore berri baino gehiago egitea aurreikusten du, tartean batera bidezko propulsiotako izango duten hibridoak.

CAFek mantentze lanak, piezen hornidura, langileen formakuntza eta laguntza tekniko ere bere gain hartu beharko ditu, hurrengo hamarkadetan SNCBren flotaren funtzionamendua bermatuz.

Hilabeteetako prozesua

Urte hasieran, bai Alstomek bai Siemens-ek SNCBren erabakia helegitez zalantzan jarri zuten, gardentasun falta leporatuz. Auditore batek apirilean adjudikazioa etetea proposatu zuen, eta

horrek prozesua hilabetez luzatu zuen. Bitartean, Belgikako sindikatu eta tokiko agintariak presio egin zuten Alstomen alde, haren Brujasko eta Charleroi lantegietako tokiko enplegua bermatzen duelakoan.

Alstomek azken errekurtoa aurkeztu zuen, baina irailean Belgikako Estatu Kontseiluak argi utzi zuen prozedura «gardena eta araudiarekin bat datorrena» izan dela, eta SNCBren aukeraketa berretsi zuen. ●AV

HINE Group-ek Polonian bere lehen planta inauguratu du

GOIERRI— HINE Group-ek Polonian bere lehen planta inauguratu du, «Erdialdeko eta Ekialdeko Europan duen presentzia sendotuz». Azaroan izan zen inaugurazioa. Irekiera horrekin, HINE Group-ek zazpi herrialdetan kokatutako bederatzi ekoizpen planta batuko ditu. Planta berriak 5.600 metro koadroko azalera du: horietatik 5.200 metro koadro ekoizpenerako izango dira eta 400 metro koadro bulego eta instalazio sozialen erabilerrako, Fortress Logistics Park Stargard-en.

Lantegia Peio Marcos Mardonesek zuzenduko du, 38 urteko ingeniari bilbotarrak. «Nazioartean esperientzia zabala du, Brasil eta Indian egingandako kanpo-zereginak kontut hartuta». Taldeko Prozesu Ingeniaritzako Zuzendaritza ere gidatua da.

«Funtsezko eginkizuna»

Fortress Logistics Park Stargard-en dago kokatuta planta, Szczecin-tik 30 km ingurura. Instalazio berri horrek «funtsezko eginkizuna» izango du taldearen hedapenean, batez ere Erdialdeko eta Ekialdeko Europan. Lantegi berria offshore haize-erroteetarako osagai hidraulikoen eta hozte-sistemen ekoizpenean zentratuko da, energia garbien aldeko joera globalarekin bat eginez. ●IG

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu

TAPIA
energia



40
1983-2023
urte zugiandik gertu

943 889 594

www.tapiaenergia.com

Azoka biziberritzeko, erosketa armairuak jarri dituzte udaletxe azpian

● Ekoizleekin harreman zuzena eskaintzen du.

Loinaz Agirre

ORDIZIA— Europar Batasunaren Next Generation laguntza-funtsarekin aurrera eramandako *Ordiziako Azokaren Transformazio Digital eta Iraunkorrerako Plana: Azoka XXI* egitasmoaren barruan, bigarren fasea martxan jarri zuen otsailean Ordiziako Udalak: Ordiziako udaletxeko plaza azpian, Ordiziako Azokan egindako erosketak nahi denean jasotzeko armairu eta hozkailu adimentsuak jarri zituzten.

Azoka biziberritzeko hausnarketa egon da ekimenaren atzean, Adur Ezenarro alkateak azaldu bezala: «Ordiziako Azokak duen oztopo nagusia asteazken goi-



Udaleko eta azokako ordezkariak diseinatzaileekin. LOINAZ AGIRRE

zetan izatea da, eta jende askok ezin du lanorduetan etorri. Horregatik, pentsatu genuen takilla adimentsu batzuk jartzea». Beasaingo Eun enpresak egin ditu neurri armairu arruntak, eta Ordiziako ACV, Tandem eta Eukene Lekuonak egin dituzte diseinu eta informatika lanak.

Erabilera nola egin, bezeroak fidelizatu... Programa oso bat dago martxan. Bezeroak aplikaziotik edo webgunetik ekoizleekin harreman zuzena edukitzeko aukera izan dezan, erosketak baserritarri zuzenean eskatzeko aukera izango da eta asteazkenean bertan jaso. ●

Mujikak jantzi du Euskal Herriko txapela odolkitan

ORDIZIA— Azaroaren 26an lehen aldiz jokatu zen Ordiziako Euskal Herriko Odolki Txapelketa, 26. Gipuzkoako Odolki Txapelketarekin batera. Ordiziako eta Beasaingo Mujika harategiak irabazi zuen, eta bigarren izan zen Beasaingo Olano harategia. Hirugarren izan zen Gernikako Jesus Mari Martija, laugarren Asteasuko Javier Iraola, eta bosgarren Tolosa-ko Muñagorri.

Eraikuntza industrializatze zentroa martxan

IDIAZABAL— Iparragirre Eraikuntzak SL enpresak Eraikuntzaren Industrializazio Zentroa inauguratu du, Idiazabalen. Zentroaren helburua proiektuak modu eraginkorrean planifikatzea, exekuzio-denborak laburtzea eta eraikuntzen kalitatea hobetzea da. Kale Nagusiko 48 zenbakiko bulegoaren ondoan dago zentro berria.



GAZTAGINTZA SARI BATZUK

Q de Quesos saria: Ordiziako Udala.

Salon Gourmets: Gaztañaditxulo, Baztarrika eta Iztueta saridun.

Idiazabalgo Gazta Azokan Gazta Txapelketa Herrikoia: Baztarrika irabazle.

Erroma Saria: Gaztañaditxulok hirugarren saria.

Great Taste lehiaketa: La Leze, Aizpea eta J. Aranburu saridun.

Gipuzkoako 41. Artzain Gazta Lehiaketa: Otaza irabazle.

Ordiziako 52. gazta lehiaketa eta Urrezko Kutxa garaikurra La Lezerentzat.

Bergarako San Martin azokako lehiaketa Ondarrentzat.

Encuentros Quesos: Baztarrikak zilarrezko domina.

Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko 26. Gazta Lehiaketa: Ondarre irabazle.

World Cheese Awards: La Leze, Baztarrika, J. Aranburu, Garoa eta Troskaeta saridun.

Eibarko 45. San Andres Azokako gazta lehiaketa: Aizpea bigarren.

Jerusalengo proiektuaren oihartzuna urte osoan

BEASAIN— Zeresan handia eman du 2025ean ere CAFen Jerusalemgo tranbiaren proiektuak. Irailaren hasieran Imanol Pradales lehendakariak proiektuaren harira esan zuen «agian gogoeta etikoa mahai gainean jarri behar dela», baina «ez dela erraza kontua eta badaudela hainbat ikuspegi» gaiaren inguruan. Dena dela, hilabete amaieran Eusko Legebiltzarrean babes irmoa eskaini zion enpresari, esanez «CAF ez dela Gazako genozidioaren par-

te». Batetik eta bestetik, aldeko eta batik bat kontrako jarrerak jaso ditu Beasaingo enpresak proiektuagatik; irailean ere, Amnistia Internazionale erakundeak CAF enpresari eskatu zion Israelen egiten ari den tren arinaren proiektua eteteko eta beste edozein kontratazio publikotik atertzeko.

CAFen oharra

Irailaren 25ean, hurrengo egunean Nazio Batuen Goi Manda-

tarien txostena aterako zutela jakitun, oharra kaleratu zuen CAFek proiektu horren inguruan, eta «aplikagarria den araudia betetzeaz» gain, enpresak esan zuen «konpromiso irmoa» duela «enpresa-etikarekin eta Giza Eskubideen errespetuarekin bere eragiketa guztietan». Proiektua gauzatzeko prozesuan, CAFek dio «behar adinako arretarako neurri espezifikoak» aplikatu dituela hiru intentsitate mailatan (orokorra, indartua eta areagotua) Nazio

Batuek argitaratutako Gatazken Eraginpean dauden Testuinguruetarako Behar Adinako Arretaren Gidak ezarritakoaren arabera. «Horren helburua da Giza Eskubideen aurkako edozein inpaktu identifikatzea, prebenitzea eta, halakorik balego, arintzea». Hurrengo egunean, aurreikusi bezala, CAF Nazio Batuen Goi Mandatarien txostenean agertu zen.

Lepotik kateatuta

CAFeko langileen zein Palestina-

ren aldeko ekintzaileen mobilizazio ugari izan dira urte osoan. Azkenetariko ekimenak izan dira CAFeko enpresa batzordeak azaroan Salam Gaza elkartearekin martxan jarritako kanpaina Gazan ur-edangarria banatzeko, edota Gazarako Mugimendu Globala taldeko hainbat kidek CAFeko sarrera nagusian egindako mobilizazioa; lepotik kateatu zirenen bost orduz han, enpresak Israelekin duen harreman komertziala eten dezan exijitzeko. ●LG

Iturri zahar, ur berri

euskaraz bizi

ZALDIBIAKO UDALA

LAZKAOKO IKASTOLA

●●●●●●

SUSTRAIAK SAKON ETORKIZUNERAKO PREST

www.lazkaokoikastola.eus

lazkao@ikastola.eus

943 880 800

Euskadi Enparantza, z/g • Lazkao (Gipuzkoa)

LAZKAOKO IKASTOLA

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia

Ohol, aglomeratuak, e.a

Ibabe industrialdea, 26

943 88 80 23

LAZKAO



Ataun, Zaldibia, Amezketa eta Urduñako ordezkariak Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluko ordezkariekin. I.V.

Mendi-lurrak ekoizpen ekologikoan ziurtatuta

● **Ataungo eta Zaldibiako mendi lurak ekoizpen ekologikoaren printzipioen arabera kudeatuko dira.**

● **Zenbait konpromiso ere dakartza egitasmoak.**

Izaro Villarreal

AMEZKETA— Ataungo, Zaldibiako, Amezketako eta Urduñako mendi-lurrak nekazaritza ekoizpen ekologikoan ziurtatuko dituztela jakinarazi zuten irailaren 23an Amezketan Mikel Arteaga (Amezketako), Ioritz Berra (Zaldibiako), Ion Fontenla (Ataun) eta Iker Santocildes (Urduña) udal ordezkariak eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren

Kontseiluko lehendakaria den Judit Gartzia eta Uxue Artola abeltzain ekologikoak. Udalerririk horiek elikagai ekologikoen ekoizpenari buruzko Europako etiketa-araudia (EB 848/2018) betetzeko konpromisoa hartu dute, eta aurrerantzean abereentzako larreak eta baso-bilketa guneak nekazal ekoizpen ekologikoaren printzipioen arabera kudeatuko dira. «Urrats garrantzitsua» dela nabarmendu dute.

Lau udalerriek guztira 3.198 hektareako mendi-eremuen kudeaketa ziurtatzeko prozesuari ekin diote: Amezketak 253 hektarea, Ataunek 1.762, Zaldibiak 283 eta Urduñak 900 hektarea.

Urrats berriak abere-zama egokia izatea, sintesi kimikoko produkturik ez erabiltzea, abereen ongizatea bermatzea eta abereak behar bezala identifikatuta edukitzea ekarriko du. Horrez gain, gaineratu dute larreak eredu ekologikoan ziurtatzeak abeltzaintza ekologikoan diharduten abeltzainei larre horiek erabiltzeko segurtasuna eta bermea emango diela; eta, aldi berean, eredu horretan ez dauden abeltzainek ere mendi-lur horiek erabiltzen jarraitu ahal izango dutela.

Ardura-hartzea

Mendi-lurrak eredu ekologikoan ziurtatzeak zenbait konpromiso, ardura-hartze eta eginbehar garrantzitsu dakartza. Besteak beste, lurzorua bizitza, emankortasuna eta biodibertsitatea mantendu eta hobetzea, materia organikoaren galera eta higadura saihestea, baliabide naturalen erabilera arduratsua sustatzea; larreetan ager daitezkeen izurriten eta gaixotasunen aurrean prebentzio-praktika naturalak lehenestea, paisaia-elementu naturalak zaintzea eta kanpoko baliabideen zein berriztagarriak ez diren baliabideen erabilera murriztea. ●

Hiruma, batera proiektatzeko marka

GOIERRI— Goierriko garaiko herriak, Debagoiena eta Urola Erdia lotzen dituen Hiruma marka sortu dute. Hiru helmugetako turismoa batera proiektatzeko marka da, merkatuan helmuga erreferente bihurtzea helburu duena.

Kode Etikoreen ziurtagiriak 32 enpresarentzat

GOIERRI— Goierriko 32 enpresa turistikoek Kode Etikoreen ziurtagiriak jaso zituzten apirilean Gasteizko Europa Jauregian; Goierriko beheko hamaseik eta Goierri garaiko beste hamaseik. Berdintasuna, jasagarritasuna edota tolerantzia aztertzen dira.

Hitzarmena, ekintzailtza bultzatzeko

LAZKAO— Udalak eta Goiekik lankidetzaren hitzarmena sinatu dute ekintzailtza eta garapen ekonomikoa bultzatzeko. Helburua da enpresa ekimen berriak sortzea, bereziki berriztaileak eta zerbitzu aurreratuak bideratuta daudenak.

Goiturrek 25 urte bete ditu

GOIERRI— Goitur Goierriko turismo agentziak 25 urte bete ditu. Martxoan egin zuten 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia Beasaingo Igartzako jauregian. Bertan elkarrekin ziren erakundearen haupoa izan diren eragileak —Goierri beheko hemezortzi udalak, merkataritza elkarteak eta landa ga-

rapenerako elkarteak, eta turismo hainbat azpisektoreetako 70 enpresa baino gehiago—. Egun batzuk lehenago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 220 landetxe biltzen dituen Nekaturrek elkartearen lehen enbaxadore izendatu zuen Goitur, «Goierriko turismoa garatzeko egin duen 25 urteko lana eta ahalegina aitortzeko eta elkartearekin izan duen lankidetzaren eskertzeko». Abenduan, aldundiak egin zion aitortza Goiturri, Zaindari

Turismo Sarietako bat emanda: Ibilbide Profesionalaren Zaindari Saria, alegia.

Enpresa adimenduna

Ordiziako D'elikatzuz interpretazio zentroak eta Zeraingo turismo bulegoak Turismo Enpresa Adimendunaren Ziurtagiria eskuratu zuten irailean. AENOR Espainiako normalizazio eta ziurtapen erakundeak balioztatutako ziurtagiria da. ● **LG**



Saiatuz psikologia

Psikologia & Psikoterapia humanista, integratiboa, holistikoa

Saioa Otegi Apaolaza
Kol zkoa: GZ01900

☎ 943880851
📍 Ordizia: Garagartza plaza, 8-1C
Donostia: Ilunbe kalea, 7 (Amara)



EGUZKI
INPRIMATEGIA

KALITATE ONEKO
INPRESIOAK
A0
NEURRIRA ARTE
840mm x 1.180mm

A4 - A3 - A2 - A1

FOTOKOPIAK • PLANOAK • KARTELAK
PROIEKTUAK • DOKUMENTUAK • TESIAK

Nafarroa etorbidea, 17 - BEASAIN
Tel 943 88 94 82 / Faxa 943 88 60 44
eguzkiinprimategia@gmail.com

HEGIALDE

Laubide, 27 LEGAZPI T. 943 73 36 24

BOTIKA

Hipermerkatua



EROSKI

Ordizia



Lazkao
Hegokak Harro

LAZKAOKO UDALA

www.lazkao.eus | 943 08 80 80 | @Xf

Ikastolak herriari

0-16an Beasain euskalduntzen

beaingoikastola.eus
Urbialde 2 - Beasain
Tel.: 943 88 96 17




IKM
AHOLKULARITZA KOOP. E.

Autonomoak eta enpresak
Laborala
Kontabilitatea
Fiskala
Juridikoa

Abokatua: Milla Sukia Galparsoro

www.ikm.net
Mallutz industria gunea ORDIZIA
Tel.: 943 88 21 06



EGUMENDI
MANGANESE STEEL

• Ipeñarrieta, 48 - 20700 Urretxu (Gipuzkoa) •
Telefona : 943 72 33 01

Rol-jokotik harago, ohituretan eragiten laugarrenez



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Beasainen, Euskaraldiaren barruan, Aittu euskara elkartearekin elkarlanean. HITZA



Euskaraldiaren hasiera ekitaldia Zaldibian: herriko musikarien saioa. GH



Goierriko Mendizale Beteranoen argazkia Eusk



Zubillaga
OÑATI
HILTEGI ETA ZATITZE ZERBITZUA

📍 Zubillaga auzoa 63, Oñati (Gipuzkoa)
☎ 943 78 21 93
📞 688 760 273
✉ bulegoa@zubillagahiltegia.com
🌐 zubillagahiltegia.com



arri
Talleres Mecánicos ARRI, S. Coop.

Salbatore auzoa 16 - BEASAIN
Tel: 943 88 16 40
info@arriemail.com
www.arriweb.com

Bi urtez behingo ariketa soziala da Euskaraldia, rol-jokoan oinarrituta. 2025ean laugarren Euskaraldia egin da; 11 egunez, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean murgildu dira herritarrak, Aho Bizi edo Belarriprest izanda. Goierrin ere, ehunka herritarrek egin dute bat.



Hikaldia Urretxu-Zumarragan, kafe baten bueltan. ASIER ZALDUA



Tobera musika eskolako ikasleen Euskaraldiko argazkia. HITZA



karaldiaren alde, Agiñako mendian. GMB



Alain Polo Euskaraldirako Beasaingo horma-irudian lanean. HITZA



Mstudio

arkitektura bulegoa

Mstudio bulegoak arkitektura zerbitzuak baino gehiago eskeintzen ditu; gertutasuna, aholkularitza eta zure helburuekiko konpromezu eta inplikazioa.

arranomendia 2, 3210 bulegoa | 20240 Ordizia

T. 677 983 036 | mirenzubeldia@mstudio.eus | www.mstudio.eus


Txindoki
Sukaldea, gure etxeko berotasuna
www.txindoki.com



AMAIN
Psikoterapia Zentrua

T 653 73 44 57
Plazaola 7, beheka - Legazpi





ordizia
bizi herria

www.ordizia.eus








tel.: 943 88 58 50

Ordiziako Udala



GNK 1920
Goierriko Nekazal Kooperatiba
www.gnk.eus

Denda
Euskal Herria 8 - Ordizia
T 943 88 04 15

Biltegia
Iurreko indus. - Olaberria
T 943 16 07 07

Hasierako lekura buelta

● Urriaren 4an izango da 50. Kilometroak Lazkaon, 'Ibilian-ibilian, buelta!' lemapean.

Iñaki Gurrutxaga

LAZKAO— Urriaren 5ean iragarri zuten 2026ko Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia Lazkaon izango zela; Elgoibarko Ikastolak pasatu zion lekukoa San Benito Ikastolari. Urriaren 10ean, berriaz, Lazkaoko ikastolako komunitate osoak, herritarrek eta herriko eragileek harrera berezia egin zioten lekukoari, kalejira batekin eta plazan egindako ekitaldi batekin. Hilabete eta pixka batera, azaroaren 28a aukeratu zuten Lazkaoko Ikastolak 2026ko urriaren 4an ospatuko duten 50. Kilometroak jaia aurkezteko. Plazako frontoia bete-bete eginda zela, ekitaldiaren lema eta logoa iragarri zituzten: *Ibilian-ibilian, buelta!*. Gipuzkoako ikastolen jaiak lehen urratsak egin zituen lekura itzuli-

ko da ospakizuna, eta horixe islatu nahi izan dute mezu eta irudi berriarekin.

Orain 48 urte, 1977an, Lazkao eta Beasain artean egin zen I. Kilometroak jaia gogora ekartzeko bideo labur baten proiektioarekin hasi zen aurkezpena. Juan Joxe Agirre artxibozain beneditarrak, Luis Mari Aldanondo Lazkaoko Ikastolako zuzendari izan-nak, Karmele Auzmendi eta Kari Eztala andereño ohiek eta Ainhoa Gurrutxaga ikasle ohiak ordukoa nola bizi izaten zuten kontatu zuten ikus-entzunezkoan.

Komunitatea sendotzea

Lehen bi ilaretan, Ion Martinez Lazkaoko Ikastolako zuzendaria, Irantzu Amundarain Lazkaoko Ikastolako lehendakaria, Xeber Maiza 2026ko Kilometroak jaiaren koordinatzailea eta Lazkaoko Udaleko ordezkariak eseri ziren. Haien atzean, herriko hainbat kultur eta gizarte eragile, eta eremua betetz hamarnaka herritar. Iñigo Lasa eta Aizpea Garmendia aurkezleek hitza hartu ondoren,



Irantzu Amundarain San Benito Ikastolako lehendakaria, azaroaren 28ko ekitaldian. IÑAKI GURRUTXAGA

Lazkaoko joaldunek eraman zuten Kilometroetako lekukoa.

Edizio guztien errepaso-bideoa ikusi eta gero, Alaitz Telletxea musikari eta irakaslea trikitia jotzen hasi zen, eta publiko artistik Amaia Agirre, Aratz Igartzabal eta Mikel Etxezarreta bertsolariak kantari. Ikasleekin abestuz amaitu zuten emanaldia oholtzan. Ion Martinez Lazkaoko Ikastolako zuzendariak aitortu zuen «ardura handia» dela gisa horretako jai bat prestatzea. Baina argi du «asmoa orain mende-erdi piztu zen txinpartari hauspoa eman eta suari bizi-bizirik iraunaraz-

tea» dela. Helburu gisa jarri du «komunitatearen partaidetza sendotzea eta atxikimendua areagotzea», eta baita alderdi ekonomikoa ere. Proiektu pedagogikoa garatzeko eraikinei egin dizkieten doikuntzekin jarraitu, eta LHko 3. zikloko gelak metodologia berrira egokitu nahi dituzte.

Bilgune izan, ibilian-ibilian

Irantzu Amundarain lehendakariak gogoratu zuen «Ikastolaren proiektua, klandestinitatean, herriko garaieetan abiatu» zutela lazkaotarrek. Kilometroek Lazkaon egindako aurreko gel-

dialdiak gogora ekarrita, mezu argia helarazi zuen: «Erronkek ez gaituzte izutzen, aurrera egiteko gaitasuna erakutsi dugu, eta ziur nago bikain erantzungo dugula!». Xeber Maiza izango da 2026ko Kilometroak jaiaren koordinatzailea, eta erronkari «ilusioz eta pasioz» heldu dio.

50 zenbakia ageri da logoan, eta «bilgunea ere irudikatu nahi izan dute forma biribil» horrekin. «Ikastolen ikur den etengabeko berrikuntza, aspaldian martxan jarri eta etenik ez duen proiektua da, itxiko ez den zirkulua, aurrera jarraitzeko asmoa duena». ●

Ormaiztegi eta Mutiloa ere UEMako kide dira ekainaz geroztik

GOIERRI— Ekainean onartu zituzten ahoz batez bazkide izateko Mutiloaren eta Ormaiztegiren eskariak. Horiez gain, Goieritik, Altzaga, Arama, Ataun, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain dira kide.

Beasainek Koaderno Demolinguistikoa du lehenengoz

BEASAIN— Beasaingo Lehenengo Koaderno Demolinguistikoa aurkeztu zuten Euskararen Egurenaren bezperan. Aittu! Euskara Elkarteak sustatutako azterlan berritzailea da. Herriko hizkuntza egoeraren argazki fidagarria eta sakona eskaintzen du, datu demolinguistikotik eta ikuspegi analitikoan oinarrituta. Gogoetarako «beharrezkotzat» jo du Aittuk.

Hiru finantza erakunderen eta UEMaren hitzarmena

GOIERRI— 2016an lehen aldiz sinatu zuten hitzarmena Kutxabank-ek eta Laboral Kutxak UEMarekin, euskara lehenesteko konpromisoa hartuz, eta 30 udalek egin zuten bat. 2021ean hitzarmena eguneratu eta Bankoa ABANCA gehitu zen. Hitzarmen hori eguneratu eta berretsi zuten azaroan UEMarekin hiru finantza erakundeek.

Kirol elkarteetan euskara sustatzeko plana martxan

GOIERRI— Urola Garaia udal elkarteak kirol elkarteetan euskararen erabilera areagotzeko *Jauzi kualitatibotik esku hartzera* plana aurkeztu zuen apirilean. 16 urtez azpiko taldeetan dute jarria fokua, eta hiru ardatz ditu: euskara mikroplanak –ekintza multzoak–, euskara mahaia –elkarrekin bilerak urtean bitan– eta pilulak –mezu laburrak–.



Nortek
Elektrizitate eta Sistemak S.L.

- Elektrizitatea
- Telekomunikazioak
- Informatika
- Eguzki energia

Areso 16, behea
LAZKAO

tlf. **943 088 003**
web www.nortek.eus
mail info@nortek.eus



ZEGAMAKO UDALA

Jose Maiora Plaza
Tel.: 943 801 115
Faxa: 943 800 073

www.zegama.eus



elkar

INGENIARITZA · FABRIKAZIOA · METROLOGIA

www.elkar-ingenierie.com

Arranomendia 5-I Goierriko Berrikuntza Poloa
20240 Ordizia (Gipuzkoa) ☎ +34 943 088 874



ARGI-LANA
IBABE MANTENUAK S.L.

Ur bero eta berogailuen mantenu eta konponketak

Ibabe industrialdea, 2
LAZKAO
Tel.: 943 88 87 19

argilanacb@gmail.com



Aiora Etxeberria, Goiturreko lehendakariarekin eta Amezketa eta Legorretako alkateekin. I. GURRUTXAGA

Misterio jolasak, euskaraz

● ‘Aralarko Ttanta’ eta ‘Misterio kasu laburrak’ izena dute jolasak.

● ‘Berria’ eta Txintxa Jolasak elkarteak dira argitaratzaileak.

Iñaki Gurrutxaga

ATAUN— Euskarazko lehen misterio jolasak kalean dira. Jolasa, irakurketa, euskara, eta euskal kultura eta ondarea lantzea dira jolas horien helburua. *Berria* egunkariak eta Txintxa Jolasak elkarteak argitaratu dituzte elkarlanean. *Aralarko Ttanta* helduentzako jolasa da, eta Goierriko Goitur turismo elkarteak izan

da babesle nagusia. *Misterio kasu laburrak* 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduta dago, eta Laboral Kutxak lagundu du diruz. Amezketa eta Legorretako udalek ere babestu dute proiektua.

Ataungo udaletxean aurkeztu zituzten abenduaren 2an. Ainara Lasa *Berria*-ko Marketin ardura-duna, Aiora Etxeberria Txintxa Jolasak taldeko kidea, Adur Ezenarro Goiturreko presidentea eta Egoitz Bergara Laboral Kutxako gazteentzako zerbitzuen ardura-duna, Goiturreko zuzendari Niko Osinalde, Legorretako alkate Iñaki Agirre eta Amezketa alkate Mikel Arteaga izan ziren han.

Etxeberriak zehaztu zuenez, «umeen arteko giroan» beste hiru lagunekin batera sortutako ideia batetik abiatu zuten proiektua, euskaraz misteriozko halako jolasik ez zegoela ikusita. «Baliok

transmititzeko aukera eskaintzen dute jolasak, eta denaren oinarrian misterioak deskubritzea dago».

Goierri ezagutzeko aukera

Aralarko dago *Aralarko Ttanta* jolasaren oinarrian, eta horregatik aukeratu zuten Ataun aurkezpenerako, Aralarko sarbideetako bat delako, eta Joxe Migel Barandiaranen jaioterri. Ezenarro gogoratu zuen Goiturrek 25 urte daramatzala Goierriren nortasuna zabaltzeko lanean, eta jolas horrek «Goierri berrezagutzeko» aukera ematen duela. «Gero eta leku eta kultura gehiago ezagutzen ditugu, baina gero eta gutxiago gure ingurua». Jolasari «produktu turistiko» gisa ere deskribatu zuen, eta familia giroko turismoa erakartzeko baliagarria izango dela uste du. ●



Epaia salatzeko eta justizia eskatzeko protestak

GOIERRI— Espainiako Auzitegi Gorenak Euskal Autonomia Erkidegoko udal legegaren dekretutik baliogabetutako artikuluko gehienak atzera bota ondoren, UEMak epaia salatzeko eta euskararentzat justizia eskatzeko deia egin zuen uztailaren 19rako. Goierriko hainbat herritan protesta bilkurak egin ziren. Irudian, Gabiria. UEMA

‘Aldaize’ aldizkariak digitalera egin du salto, webgune berriarekin

IDIAZABAL— *Aldaize* aldizkariak mundu digitalera saltoa eman du. Euskararen Nazioarteko eguna baliatu zuen *aldaize.eus* formatu berria zabaltzeko. Webgunea erabilgarri jarri zuten abenduaren 3an, eta abenduaren 4an eman zuten proiektuaren berri aurkezpen batean. Webguneak ez du paperekoa ordezkatzeko eta elkarren osagarri izango dira; webgunearen azalean azken aleko publikazio guztiak bistaratuko dituzte eta bi hilabete behin berrituko da.

‘Gipuzkoako Hitzak’ papera utzi du eta egunerokoa sarean landuko du

GOIERRI— Hamabost urtez etenik gabe argitaratu zen *Gipuzkoako Hitzak*, baina uztailaren 25ekoa izan zuen azken zenbakia astekari gisa eta paperean. Irailetik aurrera beste etapa bat hasi zuen; hurrezkero *Berria*-k egunero lantzen du Gipuzkoako lurralde informazioa euskarri digitaletan, papereko astekari izateari utzita. Erabaki bera hartu zuen *Berria* Taldeak *Bizkaiko Hitzak* astekariarekin.

Goenaga
ACERO INOXIDABLE
ALTZAIU HERDOILGAITZ
SALEROSKETA
www.goenagainox.com 943.880.663 • Zaldibia

EZKIOKO
UDALA
943 72 13 03
ezkio.eus

Ibaiondo
ARROZTEGIAK
ALTZARIAK
Katea kalea, 5
Beasain
www.mueblesibaiondo.com
943 16 40 40
639 631 640



2026ko Ehunmilak ez dute egingo, baina ateak irekita daude

● Erabaki «zaila eta hausnartua» izan dela esan du antolakuntzak.

● Azken urteak bereziki «nekegarriak» izan direla aitortu dute.

● «Edozein talderi ateak irekitzen» dizkiote jarraitzeko.

Loinaz Agirre

BEASAIN— Urriaren 1ean zabaldu zuen Ehunmilak trilogiaren Antolakuntza Batzordeak: 2026ko Ehunmilak ez dute antolatuko. 2026ko uztailan, beraz, ez da 168 kilometroko Ehunmilak, 88 kilometroko Goierriko Bi Handiak eta 42 kilometroko Marimurumendi lasterketarik izango. Erabaki «zaila eta hausnartua» izan dela azaldu zuen antolakuntzaren oharra. «Eta horrexegatik antolakuntzak horretarako dituen arazoak proiektu hau lagundu/babestu/bultzatu duzuen guztio-kin partekatu nahi ditu», esan zuten kideek.

Ehunmilak antolakuntza batzordea «Beasainen kokatuta dagoen lagun talde txiki batek» osatzen dutela gogoratu dute. «2008. urteaz geroztik boluntarioki urte guztian zehar bilerak egiten eta lanean diharduguna. Ordu asko eskaini dizkiogu proiektu honi». Proiektua martxan jarri zenetik «taldekideen egoera pertsonal eta familiarra nabarmen aldatu» denez, «zaildu egin da proiektuari behar bezala aurrera eramateko beharrezko denbora eskaintzea».



Ehunmilak proiektuko antolakuntza batzordea 10. edizioaren aurretik, 2019an. MIKEL ALBISU

Azken urteak bereziki «nekegarriak» izan direla aitortu dute. «Erabaki zail asko hartu behar izan ditugu eta horrek guztiak gainzama handia jarri du gure bizkar gainean». Era horretan, «nekeak eta erreleboaren faltak eragin handia izan dute taldean. Antolakuntza taldeaz gain ordea, oinarrikoak diren beste hainbat kideren hutsunea ere aurreikusten dugu hurrengo edizioetarako».

Baliabide ekonomikoak

Antolakuntzako giza baliabideaz gain, baliabide ekonomikoek ere izan dute eragina erabaki hori hartzerako garaian. «Diru sarrerek ez dute gastuen bilakaera berdina eduki. Proiektuaren maila mantentzeko garaian gastuek etengabe egin dute gora

Giza baliabideaz gain, baliabide ekonomikoek ere izan dute eragina erabakian

eta ez dugu jakin maila berean diru-sarrerak egokitzen». Ondorioz, urtea galerarik gabe amaitzeko ahalegin eta lan gehigarriak egi-tera behartuak egon direla aitortu dute. «Egoera horrek guztiak ez digu lasterketetan berrikuntzak ezartzea ahalbidetu eta ondorioz, ezta askotan gustatuko litzaigukeen adinako kalitatea eskaintzea ere antolatzen ditugun hiru las-

terketetan». Ehunmilak antolakuntzako kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete urte hauetan guztietan ondoan izandakoei: «Ondoan izan ditugun eta gudan sinetsi duten erakunde, babesle eta laguntzaile guztiak. Baita edizio hauetan guztietan gure lasterketak aukeratzeagatik parte hartu duten korrikalariei ere. Eta nola ez, proiektu handi hau osatzeko ezinbestekoak izan diren boluntario horiei guztiak. Horiek gabe hau guztia ez bailitzateke posible izango».

Ateak irekita

Dena den, proiektuarekin jarraitzeko interesa izan dezakeen «edozein talderi ateak irekitzen» dizkiote. «Gure laguntza eta orain arte erabilitako materialak esku-ragarri egongo dira». ●



Mikel Valdivielso

Ehunmilak antolakuntza batzordeko kidea

«Zainketa intentsiboetan dago Ehunmilak proiektua»

BEASAIN— Nolakoa izan da erabakia hartu arteko bidea?

Luzea. Hau ez da egun batetik bestera hartutako erabakia, baizik eta urteetako eztabaida eta hausnarketa baten ondorioa. 18 urteko ibilbidean metatutako nekea eta egoera pertsonalen aldaketa handiak pilatu dira. Ehunmilakek beti exijentzia maila oso altua izan du, eta guk beti bizia eman izan diogu. Azken urteetan ikusten genuen ez ginela gai maila horretara heltzeko. Ez da erraza agur esatea. Baina onartu behar genuen ezin ginela gehiagora iritsi. Ez dugu, ordea, proiektua lurperatu nahi. Zainketa intentsiboetan dago, eta hurrengo urtean ikusiko dugu gai garen jendea mobilizatzeko eta proiektuari eusteko.

Zer izan da gogorrena?

Ehunmilak ixtea gogoz kontra egiten ari garen zerbait da, eta horregatik kostatzen da hainbeste. Ez dut izan norekin komentatu, batzordekideok bakarrik genekien zerbait zelako, eta ez da erraza izan. Orain publiko egin dugunean, jende asko harrituta eta penatuta geldituko da. Gu, antolakuntzan gaudenok, are gehiago, gure bizitzaren parte handi bat izan da hau. ●AV

GRUPO elektra

Energiarekin egiten dugun gauza bera egiten dugu euskararekin:
AHALIK ETA MODURIK ONENEAN BANATZEN LAGUNTZEA.

ELEKTRA OLABERRIA www.grupoelektra.es
Harizti Industrialdea · N-1 Errepidea · 20212 Olaberria

trento
HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Garmendia Otaola, 1 Behea / Beasain / 943 880 850
www.clinicatrento.com

m mujika harategia
zuekin 1983tik

Harizti Industrialdea, 31 ■ tel. 943 880 488 ■ BEASAIN
Kale Nagusia, 16 ■ tel. 943 881 832 ■ ORDIZIA

B Serieko Lau t'erdiko Txapelketa irabazi du Beñat Senarrek

● **Unai Amianori 22-15 irabazi dio, partida iraulita.**

A.Maiz/I.Villarreal

ATAUN— B Serieko Lau t'erdiko Txapelketa irabazi du 2025ean Beñat Senar Apalategik (Ataun, 2001). Ofizioaren balioa erakutsi zuen pilotari ataundarrak azaroaren 8an, profesionaletako lehen txapela irabazita. Irungo Urantzu pilotalekuan, Unai Amiano irundarrari 22-15 irabazi zion B Serieko Lau t'erdiko Txapelketako finala. Ofizioa eta lana behar izan zituen, oso kontrara ipini baitzion partida debutatu berriak.

Bientzako zen lehen finala. Urrian debutatu zuen Amianok profesionaletan, eta laineza geroezin horrekin atera zen kantxara, mundua jateko prest. 0-8 aurreratu zen. Oso solte jokatu zuen, erritmo bizia ezarri, eta alerik galdu gabea zen Senarri gailentzen asmatu zuen. Sena-

rrentzat ere, profesionaletan daramatzen bi urteetan, lehenengo finala zen, eta kostatu zitzaion askatzen. Txapelketa guztiko estuasun handienak pasarazi zizkion irundarrak. Ez bere ezinagatik, txukun aritu baitzen, aurkariaren ahalagatik baizik. 9-14ra arte, Senarrek jarraian gehienara bi tanto bakarrik egin ahal izan zituen. Iritsi berriaren ausardiarekin puztuta, gehiago egiten ez zion utzi Amianok.

Lehen atsedenaldira atzera-kargarekin, baina bizirik heldu zen Senar. Bigarren zati ikusgarria jokatu zuen. Sakearekin min ematen hasi zitzaion Amianori, 9-14koarekin zeruertza iluntzen hasita zegoenean. 13-15era gerturatu zitzaion aurrea, 15na berdindu hurrena, eta pilotari zailduaren erakustaldia izan zen handik bukaerara bitartekoa: 22-15. Azkenetako, 14 tanto egin zituen Senarrek, eta 3 galdu. Amianok, 12 egin eta 8 galdu. Irauli ikusgarria emanda irabazi zuen Beñat Senarrek bere aurreneko txapela. Txapelketa osoan



Beñat Senar Apalategi. I. V.

partidarik batere galdu gabe lortu du aurreneko titulu profesionala.

«Egun politak izan dira, familiarrean eta inguruko jendearekin igaro ditudanak. Finala eta gero ere ederki ospatu genuen, herriko jaietan... eta orain berriz ere egunerokora bueltan. Berriz ere errutinan ondorengo partidak prestatzen», adierazi zion GOIERRIKO HITZARI finalaren ondorengo astean Senarrek. ●

Lau urterako babestuko du Ordiziako Klasikoa Rural Kutxak

ORDIZIA— Martxoan jakinarazi zuen Txapel Gorri elkarteak uztailaren 25ean jokatzekoa zen 102. Ordiziako Klasikoa profesionalen txirrindularitza proba bertan behera utzi zuela, arrazoi ekonomikoengatik: «Maila horretako ekitaldi bat antolatzeke behar den aurrekontua osatzeko ezintasunagatik».

Hurrengo egunean, baina, enpresa batek proba babesteko interesa agertu zuela jakinarazi zuen elkarteak. Eta hala izan zen azkenean; Txapel Gorri elkarteak baieztatu zuen Rural Kutxa-Caja Ruralek babestuko zuela 102. Ordiziako Klasikoa.

Halere, elkartearen nahia babesletzak «jarraipena izatea» zen, eta horretarako Rural Kutxako marketin zuzendariarekin bilera egin zuten elkarteke kideek.

«Niri gustatuko litzaidake gutxienezko hiru urterako izatea. Esan digute lehenengo aurtengorako sinatuko dugula, baina jarraikortasunaz ere hitz egingo dugula», adierazi zuen Ketxus Sanz antolakuntzako kideak. Akordioa lortu zuten bi aldeek: hurrengo lau urteetan bermatuta geratuko litzateke proba historikoa, finantza enpresaren babespean. ●LA

Xabi Zurutuzaren lan bikaina Moto 2 txapelketan

LEGAZPI— Xabi Zurutuza legezpiarrak azaroan amaitu da Europako Moto2 txapelketa. Txapelketako sailkapen orokorrean bosgarren postuan geratu da. Andifer American Racing taldearekin egin du denboraldia legazpiarrak, lehena Moto2 mailan.

Ordizia Rugby eta Biarritz Olympique elkarlanean

GOIERRI— Ordizia Rugbyk hitzarmena sinatu du Biarritz Olympique Rugby Associationekin, «jokalariak Ipar Euskal Herriko taldearen dinamikan sartzeko». OREK «bere harrobiko jokalarien prestakuntzarekin eta sustapenarekin duen konpromisoa indartzen du».



Maddi Agirre, txapelarekin. HITZA

Maddi Agirre ordiziarra, Euskadiko boulderreko txapeldun

ORDIZIA— Maddi Agirre Zubeldia eskalatzaile ordiziarra Euskadiko Boulder txapelketa irabazi zuen otsailean, maila absolutuan. Martutenen jokatu zen txapelketa eta 17 urteko ordiziarra lehen aldiz irabazi zuen modalitate horretan. Maila handia erakutsi zuen, eta finaleko lau bloketatik

hirutan jo zuen goia. Bigarren eta hirugarren Elur Arteaga eta Intza Elizalde tolosarrak izan ziren, hurrenez hurren.

Ekainean, berriz, brontzezko domina jantzi zuen Eskaladako Espainiako Txapelketan, 19 urtez azpikoen mailan hirugarren postua eskuratu ondoren. ●LA

oreka
fisioterapia zentrua

Ainitze Jauregi
Kol. zkia. 179

■ ERREHABILITAZIOA	■ KIROL MASAJEA
■ MANTENU TRATAMENDUA	■ LUNBALGIA ETA ZIATIALGIA
■ MASAJE TERAPEUTIKOA	■ DRENAJE LINFATIKOA

LARDIZABAL KALEA 3, Behea SEGURA Tel.: 943 80 02 88 / 646 32 94 79



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON





Alex Aranburu ezkiotarra, besoak altxata, Beasaingo helmugan sartzen. ASIER ZALDUA

Alex Aranburu garaile Beasaingo helmugan

● Ez zen podiumera igo; hasieran Romain Gregoireri eman zioten garaipena.

● Gorabeheren ondoren, hurrengo egunean jaso zuen garailearen saria.

Laida Goiburu

GOIERRI— 2025ean Euskal Herriko Itzuliak Goierriitik igaro dira. Apirilean, gizonezkoen itzuliko helmuga eta irteera etapa bana jaso zuen Beasainek; 3. etapa Zarautz-Beasain izan zen, eta gorabeherekin izan bazen ere, goierritar batek irabazi zuen etapa hori: Alex Aranburu ezkiotarrak. Gorabeherak izan ziren, nahiz eta lehen postuan

helmugaratu garaipena kendu ziotelako hasieran. Helmugatik gertu zenean, jada Beasainen, treneko errotonda eskuinetik hartu zuen ezkiotarrak, eta antolakuntzak esan zuen ezkerretik hartu behar zuela. Hala, bigarrenari eman zioten garaipena, Romain Gregoireri. Aranburuk eta bere taldeak argudiatu zuten Itzuliaren liburuxkan, etapak prestatzeko erabiltzen duten horretan, biribil-gunea eskuinetik hartzekoa zela

zehazten zela. Ez zen egunean bertan igo podiumera.

Erabaki aldaketa etorri zen gero, eta Aranbururi eman zioten garaipena. Baina hurrengo egunean igo zen podiumera, Beasain-Markina Xemein irteerako etapa egunean, alegia. Garaipen gazi gozoa izan zuen, momentuan familia eta lagunartean gozatu ezin izan zuena.

Eibarren bukatu zen gizonezkoen Euskal Herriko Itzulia, eta sailkapen nagusiko lehen euskalduna izan zen Aranburu, zazpigarren postuan, Almeida garailea-rengandik 2:45 minutura. Inoizko Itzulirik onena egin zuen Aranburuk, Beasaingo etapa irabazi eta sailkapen nagusian inoiz lortu duen posturik onena lortuta.

Onenak Zumarragan

Maiatzean, Itzulia Women lasterketaren lehenengo etapa Zumarragan izan zen; Zumarraga-Agurain. Emakumezko txirrindulari onenak elkartu ziren hala Zumarragan probari hasiera emateko. Hemeretzi taldetan banatuta, 114 txirrindularik parte hartu zuten. Lehen zein bigarren —Ugao Miraballes-Igorre— etapak Mischa Bredewold-ek irabazi zituen, eta hirugarrena —Donostia-Donostia-Demi Vollering-ek. Sailkapen orokorra azken horrentzat izan zen; hirugarren txapela jantzi zuen hala, 2022an eta 2024an ere irabazi baitzuen Itzulia Women lasterketa. ●

Gari Ugartek profesionaletara salto egin du

LEGAZPI— Gari Ugarte (Legazpi, 2005) txirrindulariak profesionaletara salto egin du, Euskaltel-Euskadi taldearekin bi denboralditarako sinatuta. 2026an eta 2027an Euskaltel-Euskadi taldean arituko da. Bi urte bigarren taldean eman ondoren, abuztuaren mailot laranjarekin *stagiaire* gisa debutatu zuen. Ugartek adierazi du profesionaletarako urratsa egitea «egia bihurtutako ametsa» dela. Euskadi Fundazioak legazpiarraren denboraldi bikaina nabarmendu du.

Unai Garitano munduko kenpo kai txapeladun

LEGAZPI— Unai Garitano Laurobak (Legazpi, 1997) kenpo kai arte martzialeko munduko txapelketa irabazi du Japonian, defentsa pertsonalean, Getariako Itsaso Legorbururekin bikotea osatuta. Abuztuaren 10ean izan zen, Hamamatsu hirian. Irailean Legazpiko Udalak omenaldia egin zion udaletxean garaipenaren aitortza gisa.

Brontzezko maila lortu du Ordiziako atletismo mitinak

ORDIZIA— Txindoki Atletismo Taldeak 2015az geroztik antolatzen duen Jose Antonio Peñaren oroimenezko atletismo mitina *Challenger* mailakoa izatera pasa zen 2022an, eta 2025ekoan koska bat gora egin du, brontzekora (*World Athletics Continental Tour Bronze*). Uztailaren 5ean jokatu zen. Bilbokoa zen ordura arte Euskal Herriko brontzeko bakarra.

CAF

TRUST
IN MOTION

Ziklo-krosak biziberrituta itzuli dira Goierri, Ataun, Segura eta Ormaiztegin

GOIERRI— Ziklo-krosa oraindik ere bizirik dago Goierri. 2024/2025eko denboraldiko egutegian bi proba zeuden aurreikusita eskualdean: Segurakoa, abenduaren 7rako aurreikusia, eta Ormaiztegiakoa, urtarrilaren 5ean jokatzekoa zena. Ez bata, ez bestea, ez ziren jokatu azkenean. Baina 2025ean indarra hartu eta hiru proba izan dira egutegian: Ormaiztegiakoa, urtarrilean bertan behera geratu ondoren azaroaren 9an jokatu zena nazioarte mailako UCI C2 mailan; Ataungoa, 66 urteren ondoren berreskuratuta, abenduaren 20an jokatu zena eta Gipuzkoako txapelketa ere izan zena; eta Segurakoa, abenduaren 28an, Euskadiko ziklo-kros txapelketa izan dena.

Urkiola
ERRETEGIA

Kale Nagusia, 7
BEASAIN
943 08 61 31
asadorurkiola.com

tandem

BRANDING
eta DISEINUA

www.tandem.eus

ARANDIA
GARAJEA
MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

www.arandiagarajea.com

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



LORPENETAKO BATZUK
HILABETEZ HILABETE

Urtarrila

Atletismoa: Ainhoa Sanz Euskadiko kros txapeldun; Hodei Fernandez FEDDI 16 urtez azpikoan autonomia erkidegoen arteko Espainiako kros txapeldun.

Otsaila

Bola: Juan Pedro Agirre eta Juan Mari Iñurritegi eta Garbiñe Alustiza eta Aitziber Makazaga garaile Gipuzkoako binakako bola txapelketan.
Eskalada: Maddi Agirre Euskadiko boulder txapeldun.
Atletismoa: Aimar Alustiza 23 urtez azpiko Espainiako txapeldunorde pisu jaurtiketan.
Judoa: Endika Perez de Arenaza eta Ibai Gil, brontzeak Euskadiko judo txapelketan.
Eskia: Luken Garitanok zilarrezko domina Europako txapelketan.

Martxoa

Eskia: Luken Garitanok brontzezko domina 21 urtez azpiko munduko txapelketan.
Igeriketa: Nahia Garrido bigarren Espainiako txapelketan, bizkar igeriketako 200 metroko proban.
Atletismoa: Zuhatz Sukia 20 urtez azpiko pista estaliko Espainiako Txapelketan urrezko domina.
Errugbia: Ekain Imaz Europako txapeldunorde.
Harri-jasotzea: Gari Garmendia harri handietan txapeldun.
Txirrindularitza: Maixa Odriozola Espainiako Kopako laugarren proban irabazle kadete mailan.
Martxa: Hodei Caballero 20 kilometroko proban Espainiako 23 urtez azpiko txapelketan hirugarren. Euskadiko errekorra.

Apirila

Eskubaloia: Imanol Gartziandiak

Hungariako Kopa irabazi du Pick Szeged taldearekin.

Futbola: Dani Garciak Greziako liga irabazi du Olympiacos taldearekin.

Maiatz

Pilota: Aratz Elortzak GRABNI lehiaketako txapela lortu du 22 urtez azpiko taldean.
Futbola: Selekzioen arteko Espainiako txapelketa irabazi du Intza Arrondok 16 urtez azpikoetan, eta Maitane Garrok eta Aiora Sarasolak 14 urtez azpikoetan.
Txirrindularitza: Ion Salaberria kimu mailako Gipuzkoako txapeldun.
Atletismoa: Txindoki taldeko Ainhoa Albisuk, Ane Barandiaranek, Larraitx Aldasorok eta Irene Basartek osatutako 18 urtez azpiko taldeak 4x400 probako Euskadiko marka ondu du.
Tenisa: Ane Mintegik ITF Platja d'Aro nazioarteko torneoa irabazi du.
Saskibaloia: Goierri Aldapa senior taldea Bigarren Liga Nazionalera igo da.
Futbola: Dani Garciak Greziako Kopa irabazi du Olympiacos taldearekin.
Txirrindularitza: Aimar Ugarte buru hirugarren Euskadiko txapelketan kadete mailan.
Futbola: Gipuzkoako Kopa irabazi du Ilintxaren emakumezkoen taldeak.

Ekaina

Eskalada: Maddi Agirre hirugarren 19 urtez azpiko Espainiako txapelketan.
Bola: Garbiñe Alustiza eta Itoiz Alustiza Goierriko bola txapeldunak.
Martxa: Euskadiko marka minutu eta 28 segundoan hobetu du Hodei Caballero 20 kilometrokoan.
Atletismoa: Goierri Garaia atletismo taldea, hirugarren Espainiako Trail Running Txapelketan.
Atletismoa: Mikel Auzmendi hirugarren Trail 100 Andorra 80 kilometroko proban.

Txirrindularitza: Unai Zabalo hirugarren txirrindularitza egokituko Espainiako Kopan.

Pala: Oiangu taldeko Garikoitz Agirrezabal eta Beñat Ibarguren txapeldunorde Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan.

Uztaila

Igeriketa: Nahia Garrido bigarren gazte mailako Europako txapelketan.
Atletismoa: Aimar Alustizak zilarra lortu du Espainiako txapelketan, 23 urtez azpikoetan.
Txirrindularitza: Maixa Odriozola urrea eta brontzea Espainiako txapelketan.
Atletismoa: Ainhoa Agirrek brontzezko domina lortu du Espainiako Txapelketan 23 urtez azpikoetan.
Martxa: Hodei Caballero 5 kilometroko martxako Euskadiko marka berria jarri du.
Tenisa: Ane Mintegik Torinoko txapelketa irabazi du.
Urpeko igeriketa: Ordiziako Urpekoak taldekoek domina ugari Espainiako txapelketan.
Futbola: Irene Paredes Europako txapeldunorde.
Atletismoa: Zuhatz Sukia Espainiako txapeldun pisu jaurtiketan 20 urtez azpikoan.

Abuztua

Sega: Zaldibiako Almitza elkarteak kideak Europako sega txapelketan.
Arrauna: Uxune Urkiak Getariako Bandera irabazi du Tolosaldearekin.
Futbola: Ane Etxezarretak Euskal Herria Kopa irabazi du Eibarrekin.

Iraila

Mendia: Unai Dorronsoro bosgarren Tor de Gents 335 kilometroko lasterketan.
Txirrindularitza: Gari Ugartek Salamancako itzulia irabazi du.
Mendia: Lide Urrestarazuk Gorbeia Suzien irabazi du, eta errekorra ezarri.

Urria

Judoa: Legazpiko judokak dominekin tzuli dira Espainiako Kopatik.
Tenisa: Ane Mintegik Sevillako Copa Nadia irabazi du.
Duatloia: Mayi Mujika eta Josu Urrestarazu Euskal Herriko mendiatloiko txapeldun.
Aizkora: Jon Zaldua bigarren Euskadiko gazteen aizkolari txapelketan.

Azaroa

Pala: Oiangu elkarteak Aimar Etxeberria eta Zuhaitz Letamendia txapeldun Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako larruzko paletako 2. mailan.
Atletismoa: 16 urtez azpiko klub arteko Euskadiko txapelketan bigarren postua lortu dute Txindoki taldeko neskek.
Igeriketa: Nahia Garrido 18 urteko Espainiako errekorra hautsi du bizkar igeriketako 50 metroko proban, eta Euskadiko 200 metrokoan.
Pilota: LAPKEk Gipuzkoako klub onenaren aitortza jaso du.
Parapentea: Mattin Iñiguez Euskadiko Xcontest txapelketa

irabazi du.

Harri-jasotzea: Gari Garmendia harri handien Gipuzkoako txapeldun.
Errugbia: Markel Odriozola 18 urtez azpiko Europako txapeldun.
Atletismoa: Hodei Fernandez Espainiako txapeldun FEDDI mailan.
Gimnasia erritmikoa: Irune Diego Espainiako txapeldun haurren mailan. Junior taldeko Haizea Aldasoro, Aroa Madina eta Uxue Morea txapeldunorde absolutuan.
Abendua
Pala: German Elkorro Nazioen Ligako azpitxapeldun pala ego-katuan.
Atletismoa: Ainhoa Sanz Gipuzkoako kros txapeldun.
Txirrindularitza: Auritz Ormazabal Gipuzkoako ziklo-kros txapeldun; Aner Irizar Euskadiko ziklo-kros txapeldun.
Pilota: Pablo Mendizabalek Gipuzkoako Mendebaldeko Txapelketa irabazi du.
Harri-jasotzea: Gari Garmendia irabazi du Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa.

autorrecambios
GOYERRI
Automobilien zerbitzu orokorrak
943 884 550 690 948 999 info@goyerri.com www.goyerri.com
Antzizar 1, 20200 Beasain (Gipuzkoa)

GANBO-TXIKI tailerrak

MEKANIKA AROZTEGIA ETA PAKETATZEAK
www.ganbotxiki.com
Zubi Erreka industrialdea 50 - LAZKAO
665 731 205

Zuzenki
fiskala • juridikoa • kontablea • laborala
943 16 23 93 Tel.: 943 162 393
600 374 754 Hirigoi, 7 LAZKAO
zuzenki@zuzenki.eu www.zuzenki-aholkularitza.eus

AGIRRE ERAIKUNTZAK

GARABI, POLIPASTO ETA MONORAILAK
INSTALAZIOA
KONPONKETA
MANTENIMENDUA
BERRITZEA
Senpere, 12 Lazkao Tel.: 943 88 15 57
www.agirre-eraikuntzak.eus

zabale
— belardenda

Santa Maria, 8 - ORDIZIA
www.zabale.eus

Gure zerbitzuak

- Akupuntura
- Pisua kontrolatzea; argi interakzioaren ebaluazioa
- Haurrentzako elikagaiak
- Sendabelarrak
- Elikagai biologikoak, glutenik gabeko elikagaiak eta kosmetika naturala
- Kirolarientzako produktuak

ORMAIZTEGIKO UDALA

Hemen
euskaraz bizi gara

Alisson Chamorro

MVTILOAKO UDALA

943 80 04 50 mutiloa.eus

INDUSTRIA
HORNIDURA
ZERBITZUAK

Gamesa
BEHAR DUZUNA Behar Duzunean

ZUGAZTIBI

- aholkularitza
- bitartekaritza zerbitzua
- higiezin agentzia
- abokatuak

Domingo Unanue plaza, 5 behea ORDIZIA zugaztibi@zugaztibi.eu
T: 943 161 558 M: 639 957 489

Utzitakoari omenaldiak eta esker ona



Laguntasun errondaila Erramun Amundarainen omenezko ekitaldian. i.G.

GOIERRI— Urtero lez, hutsuneak utzi ditu 2025. urteak ere. Herri-gintzan, kirolean, euskalgintzan... nabaritu dira hutsune horiek, eta egindako ekarpenaren omenezko zenbait omenaldi jaso dituzte hildako askok Goierrin. Batzuk GOIERRIKO HITZAK jaso ditu, beste asko ez, ordea.

Otsailean, Feliciano Ezkiaga legorretarra hil zen Beasainen. 1936ko gerraren aurreko Legorretako Irrintzi Alai taldearen ikurrina etxean gordea izan zuten 2023ko abenduaren 30era arte. Egun horretan, Feliciano Ezkia-

gak Legorretako Udalarari eman eta harrezkeroztik udaletxeko areto nagusian dago zintzilikatuta. Legorretako EAJk gogoan izan zuen: «Beti legorretarra, beti abertzalea, euskaltzalea. Beti pertsona zintzoa».

Martxoa kirolari lotutako berri txar batekin hasi zen; martxoaren 7an Axio Araña Igoa (Beasain, 1961) errugbi jokalaria eta entrenatzaile ohia hil zen, 63 urterekin, gaixotasun baten ondorioz. Hamalau urterekin hasi zen errugbian, eta ia hogeitaz urtean aritu zen jokalaria. Espainiako eta

Euskadiko selekzioekin jokatu-takoa, bi urte ez beste denetan – Atletiko San Sebastianen bi urte egin zituen – Ordizia izan zen bere taldea. Jokatzeari utzi eta entrenatzaile hasi zen. Kirol ibilbide hori aintzat hartuta, Foru Aldundiak sari bat eman zion 2012. urteko abenduan. 2014. urtera arte izan zen Ordizia Rugbyko entrenatzaile. OREko jokalaria eta entrenatzaile ohia oroitzeko eta omentzeko, minutuko isiluneak egin zituzten asteburuan Espainiako hainbat mailatako errugbi partiden hasieretan, eta Ohorez-

2026an etorri museora Gipuzkoako lurraldea nola osatu zen ezagutzera

Gipuzkoa
Behin Betiko:
Lurraldea XIX. mendean

GIPUZKOA

www.zumalakarregimuseoa.eus

GABIRIAKO UDALA
DENON ESKURA

gabria.eus

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
Kot. Zenb. 599

Araba kalea, 1
ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
Tel.: 943 087 486
688 651 379

ko Mailako taldeak Altamiran jo-
katu zuenean, martxoaren 21ean,
ekitaldi xume bat egin zuten ha-
ren omenez.

Euskalgintzaren garapenean
giltzarri izan zen Joxe Azurmendi
filosofo, pentsalari eta idazle
zegamarra uztailaren 1ean hil
zen. 1941eko martxoaren 19an
jaio zen Zegaman, eta bere ibilbi-
de intelektuala Arantzazun hasi
zen, frantziskotarrekin. 1960ko
hamarkadan Europan ibili zen,
Alemanian bereziki, eta frankis-
mo ostein Euskal Herrira itzuli
zen. 40 liburutik gorako obra utzi
du. Jakin Taldeko kidea zen. *Jakin*
aldizkariko zuzendari Lorea
Agirrerren hitzetan «azken hamar-
kada luzeetan Euskal Herrian sor-
tu den pentsalari handienetako
bat» izan da: «Zaila izango da be-
rarekin daukagun zorra kitatzea».
Aldizkariak uztailaren zegamarrari
omenaldi kolektiboa egiteko *Jakin*
269-270: *Zergatik eta zerta-
rako Joxe Azurmendi* zenbaki be-
rezia kaleratu zuen. Durangoko
Azokan, Jakinek eta Gerediagak
ekitaldia egin zuten azokaren az-
ken eguneko ekitaldien barruan
haren ekarpena eskertzeko.

Abuztuan, Santos Beloki eus-
kararen alde lan nekaezina egin
zuen frantziskotarra hil zen.
Irakasle, gai-jartzaile, epaile,
bertso-idazle... izan zen Beloki,
eta aldi berean umila, diskretua,
baina beti presente bertsolaritzaren
oinarrietan. Bere jarduerarik
esanguratsuenetako bat Segura

Irratian egin zuen, hitz zaharrak
eta herriz herriko euskal hizkera
gordetzen.

Abuztuan ere, Kontxita Telleria
Mundiñano (Beasain, 1928), Ordi-
ziako Martinez jatetxeko sukaldaria
hil zen 96 urterekin. Euskal
sukaldaritzan erreferenteetako
bat izan da Telleria. Horren leku-
ko da Mantala proiektuak euskal
gastronomia eraldatu duten 50
emakumeren testigantzak jaso
dituen *Mamia. Esentzia* liburuan
aitortza egitea.

Zientziaren arloan ere izan dira
galerak. Azaroan Jose Maria Faus
Iurrita ornitologo eta Aranzadi
Zientzia elkarteak kide ordiziarra
hil zen. Landarlan Ingurumen El-
karteak hura gogoratu eta esker-
tu zuen «faunaren ezagutza eta
ikerketan egindako lan izugarri
eta garrantzitsuagatik».

Plaza beteta

Urriaren 31n hil zen Erramun
Amundarain Otegi (Itsasondo,
1951), 74 urterekin. Itsasondan
jaioa, Ordizian bizi izan zen
Amundarain. Goierri Eskolako
irakasle eta HBko zinegotzia izan-
na, baina batez ere herrigintzako
aktibista nekaezina izan zen. La-
guntasuna Errondailako musikaria
eta ehunka herri bazkaritako
sukaldaria. Albistea zabaltzeare-
kin batera, sare sozialetan hain-
bat esker oneko hitz izan ziren
itsasondoarrarentzat.

Eskualdeko hainbat saltsatan
sartua, goierritar askok egin zu-

ten bat azaroaren 3an Ordiziako
Plaza Nagusian egindako herri
omenaldiarekin. Plaza goraino
bete zen azken agurra emateko;
norbanakoek zein eskualdeko he-
rri ezberdinetako eragile eta tal-
dek parte hartu zuten. Txalaparta
doinuz lagunduta, Emanurre
taldekoen ikurrinekin eta Lagun-
tasuna Errondailako musikari-
tresnek osatutako pasabidetik
sartu ziren plazara Amundarain-
en familiartekoak, hildako seni-
dearen argazkia eskuan. Dantza,
bertsoak, Kuxkuxtu txarangaren
musika... agur ekitaldia baino,
omenaldia izan zen. Herria egiten
lagundu zuela azpimarratu zuten:
«Urtean zehar milaka lagun ese-
rarazi ditu mahaiaren bueltan
herriko taldeen ospakizunetan.
Erramunen sukalde lanak herria
egin du. Erramunen sukalde lan-
ak ez du sekula inor bazterrean
utzi. Erramunen sukalde lanak
berarentzat hain garrantzitsua
den belaunaldien arteko harre-
mana sustatu du».

Lenbur Fundazioaren sorre-
raren bultzatzaile izandako Au-
relío Gonzalez abenduan hil zen.
Lenburren eskutik, Legazpik bur-
dinarekin eta naturarekin duen
harremana baliatuz, bi elementu
horiekin lotutako ondarea berres-
kuratzeko jardun zuen urteetan.
1979-1983 legealdian EAJrekin
Zumarragako alkate izandako
Jose Luis Ruiz ere abenduan hil
zen. Urola Kirol Elkarteak lehen-
daria ere izan zen. ●GH



ARAMAKO UDALA

Herriak egina



udala@arama.eus www.arama.eus
943 88 07 39



MARGOGAI

PINTUREN, ERREMINTEN ETA PINTURA-MAKINERIAREN SALMENTA

Lazkaibar kalea, 1 BEASAIN
lazkaibar@margogai.com - www.margogai.com
943 882 293 - 625 758 646



**GOIERRIKO
INTERPRETazio
ZENTROA**

**ELIKADURA ETA
GASTRONOMIA
GUNEA**



Santa Maria kalea, 24
20240 Ordizia (Gipuzkoa)
943 882 290 - www.delikatuz.com



IGARTUBEITI
Baserri Museoa

ERAKUSKETA BERRIA

"Baserria. Egurra. Harria. Mitoa. Orain"
2026an zehar

 **GIPUZKOA**

www.igartubeitibaserria.eus

Euskaraz bizi, sentitu, amestu



Euskara zerbitzua
Tel: 943 73 70 30
Fax: 943 73 72 00
euskara@legazpi.eus



**LEGAZPIKO
UDALA**

www.legazpi.eus



ezarri

**Ametsak
mosaikoz
eginda daude**

Zubierreka Industrialdea 58
20210 Lazkao - Gipuzkoa
ezarri.com

Alkaizak uko egin dio bekari eta Elkarrek bertan behera utzi du

● 10.000 euroko bekari uko egin dio Saioa Alkaizak.

● Igartza sariaren beka bertan behera utzi du Elkarrek.

Laida Goiburu

BEASAIN— Irailaren 10ean jakinarazi zuten 28. Igartza Sariaren bekaren irabazlea Saioa Alkaiza Guallar (Iruñea, 1991) zela ordura arte antolatzaile ziren Beasaingo Udalak, Elkar argitaletxeak eta CAF enpresak. *Katu ileak txandaletan* izeneko eleberri-proiektuarekin nagusitu zen iruindarra, eta 10.000 euroko laguntza jasoko zituen lana idazteko eta Elkarrekin argitaratzeko.


Lau egun beranduago, ordea, irailaren 13an, sariari uko egingo ziola jakinarazi zuen Alkaizak, palestinar herriarekiko elkartasun keinu gisa, eta salaketa gisa: «Palestinar herriaren kontra gauzatzen ari diren genozidioan CA-



Saioa Alkaiza, eskuinetik bigarrena, aurkezpenean. A. VIERBÜCHER

Fek duen inplikazioa salatzeke, uko egiten diot Igartza sariari», adierazi zuen komunikatu batean. Idazleak salatu zuen CAFek «kulturaren bidez zuritu» nahi zuela bere burua. «Israelen kontrako boikot kanpainak martxan dauden honetan, kulturgileoi lerratztea dagokigu». BDZ Boikot, Desinbertsioen eta Zigorren aldeko nazioarteko taldeak erabakia «txalotu eta eskertu» zuen.

Ia bi aste beranduago, irailaren 23an, Elkar argitaletxeak bertan behera utzi zuen Igartza beka, eta Palestinako genozidioarekin lotu zuen erabakia: «Israel Palestinan egiten ari den genozidioaren testuinguruan, Elkar argitaletxeak erabaki du Beasaingo Udalak, CAFek eta argitaletxeak berak antolatzen duten Igartza bekarekin ez jarraitzea, eta beka bertan behera geratuko da». ●



«Boikot kanpainak martxan dauden honetan, kulturgileoi lerratztea dagokigu»

SAIOA ALKAIZA

Idazlea

Lurra, Gizarte Intereseko Ondasun

URRETU— Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Intereseko Ondasun izendatu zuen otsailean Lurra dantza taldea, bere ekarpenagatik eta lanagatik. Lurrak 60 urte bete ditu 2025ean, eta urte hauetan guztietan lan handia egin du folkloreaken alde.

Agur Poligrafo Fest eta ZZ Rock jaialdiei

URRETU-ZUMARRAGA— Zarra-parra kolektiboak antolatutako Poligrafo Fest eta ZZ Rock jaialdiek agur esan dute 2025ean. Poligrafo Fest jaialdiaren azken edizioa apirilean izan zen, eta urrian ZZ Rock-ena.

Patxi Zubizarretak irabazi du Xabier Lete beka

ORDIZIA— Patxi Zubizarretak Xabier Lete beka irabazi zuen uztailan. *Txoriei begira zegoen gizonari begira zegoen emakumea* du izena Zubizarretaren proiektuak, eta 70.000 euro lortu zituen urtebetean lana garatzeko.

Ataunen eta Lazkaon garai bateko inauteriak berreskuratu dituzte

GOIERRI— 2025a urte ona izan da inauteri herrikoientzat, Goierriin galduta zeuden bi herritan usadio zaharrak berreskuratu baitzituzten. Lazkaon, duela 60-70 bat urte galdu zen moztaroen usadioa berreskuratu zuten, eta ehunka herritarrek kalera atera zuten festa otsailaren 28an. Antzinako inaute-tradizioko

jantziak eta ohiturak ahanzturaren kutxatik hartu, eta kalejira koloretsu eta alai batekin berritu zituzten. Ataunen ere garai bateko inauteriak berreskuratzeko lanean aritu ziren, Otsok dantza taldea gidari zela. 2025eko otsailaren 28an herritarrek kalera atera ziren «trapu zaharrak» jantzita. ●LG

Biona
aroztegia

Erratzu industrialdea, z/g
Tel.: 943 72 02 55
URRETU (GIPUZKOA)

www.biona.net

Beasain Wikipedian euskaraz, sarean errotzeko

BEASAIN— Beasainpedia euskarazko Wikipedian Beasaini buruzko edukiak aberasteko proiektu herritarra abian jarri dute 2025ean Aittu! Euskara Elkartek eta Beasaingo Udalak. Ekimenaren helburua da Beasaini

ni buruzko informazio fidagarria, zabala eta euskarazkoa sortzea, sarean gure hizkuntzaren presentzia indartuz. Beasainpideren lanaren koordinazioa Aittu! Euskara Elkartearen esku dago, eta Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen (EWKE) laguntza teknikoa jasotzen du. Asmoa ez da soilik Wikipediako artikulua kopurua handitzea, helburua da euskararen normalizazioan urrats berriak egitea, hizkuntza eremu digitalean ere errotuz. ●AV

Urola Garaiko Lanbide Eskola ESKOLA
Batxilergoa - Lanbide Heziketa - Ikastaroak - Enpresa Zerbitzuak

Beloki Hiribidea, Zumarraga www.ugleskola.eus

ZUEKIN
KOMUNITATEAK [@zuekin@zuekin.eus](mailto:zuekin@zuekin.eus)

GERTUTASUNA
KOMUNIKAZIOA
KONPROMISOA
ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Gure gunea. Zure gunea.

Elosegi 20 · Lazkao · 943 88 65 53 621 27 15 70



KULTUR EKOIZPENA

Liburuak

Tere Irastortza. *Glosak/Glosar el mundo eta Glosak/Glossar el món.*
Txusma Perez Azazeta. *The Mountain Family.*
Eneritz Martin. *Estela, bidaia.*
Ricardo Gomez. *Patria, la buena.*
Elixabete Martin. *La mitad de S.*
Edurne Urrestarazu. *Mendia eta ni.*
Juantxo Unanua eta Xabier Garmendia. *1924-2024. Udal eraikinen mendeurrena.*
Kristina Galarraga. *La memoria del corazón.*
Mikel Aiestaran. *Gazako istorioak. Bizitza gerren artean.*
Mariluz Cabezas. *Nunca fuimos ellos.*
Xabier Mendiguren. *Borrero txiki bat.*
Pedro Berriotxoa. *Areizaga, Jauregi, Etxaluze: generales urretxuarras.*
Lierni Azkargorta. *Anatomia bertikalak.*
Herritarrak/Gabiriako Udala/

Xenpelar Dokumentazio Zentroa. *Gabiriako bertsolaritza eta bertsolaritza Gabirian.*
Iñaki Dorronsoro. *Azpijokoa Azpijazun.*
Ion Fontenla, Iñaki Aizpuru eta Garazi Auzmendi. *Saguzarren atlasa.*
Maitane Vierbücher. *Tus luces y tus sombras.*
Anttoni Okariz eta Pilare Muxika. *Itsasoko ogi-labeen inguruko azterlana.*
Iñigo Sarasola eta Maitena Illarramendi. *Kateriñe.*
Antxiñe Mendizabal. *Katona.*
Gorka Erostarbe. *Auzokinak.*
Amaia Telleria. *Aurpegiak.*
Betzaida Urtaza. *Amesgileren liburuak; azkenak, Imelda eta Arimen Gauda, Mairuak eta Mateo misterioak II.*
Mikel Urdangarin. *Gizabere-txoak gara. Joxe Azurmendi feminismoekin elkarriketan.*
Itxaso Salgado. *(In)vencible.*
Iñaki Iurrebaso eta Gari Goikoe-txea. *Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan.*
Ane Odriozola. *Al subir la marea.*
Luis Mari de Juan. *Itzalik gabeko emakumea.*

Iñaki Dubreuil. *Epidemias en Villafranca II.*
Antonio Somoza. *Cronicas de la barbarie.*
Ion Muñoa eta Andoni Eizagirre. *Herri txikiak aurrera begira. Geroa auzolanetik.*
Ion Fontenla. *Ataungo barrunbeak.*
Joseba Gabilondo. *Independen-tziaren dekalogoak.*
Jose Antonio Azpiazu. *El combate por el control del clima. Mitos y creencias populares vascas.*
Patxi Saez Beloki. *Beasaingo lehenengo Koaderno Demolin-guistikoa azterlana.*
Balu. *Amiltzearen lorratza eta Gu da gure guda.*
Mikel Imaz. *Urola. Camino de hierro y agua.*
Maite Muga. *Lurrak oroitzen duen lekuan.*
Fermin Lopetegi. *SCR Auzokoak, cincuenta años de vida.*

Musika

Loak. *Bi ertz diskoa.*
Mikel Telleria. *Oroit Lou Reed estudioko laugarren lana.*
John Dealer & The Coconuts. *It's on diskoa, taldearen hamarga-*

rren urteurrena ospatzeko.
Gorka Hermosa. *Berliner Philar-monie aretoan Hope bere azken konposizioaren estreinaldia.*
Gari. *Gari duela 30 urte grabatu zuen bere bakarkako lehen diskoaren binilozko edizio zaharberritua.*
Odik. *Bonjour bere lehen diskoa.*
Zatekeen. *Eraso matxisten aurka, Zumarragako jaien harira sortutako Zer berri? kanta.*
Aimar Z. *Z albuma.*
Ekeko el Perro. *Camino D Regreso albuma.*
Garazi Zabaleta. *Donostiako Hamabostaldian Oximoron obraren estreinaldia.*
Uxue Kerejeta. *Amaiera diskoa.*
Esanezin. *Ianire Aranzabe buru duen taldearen Hormetan idazten diskoa.*
Isuo. *Suzko ikurra diskoa.*
Noir Socha. *IV izeneko EPa.*

Ikus-entzunezkoak

Gorka Hermosa eta Iñaki Pine-do. *Zumarragak eta trenbideak trikitiaren sorreran izan zuten papera ezagutzeko Hauspoa eta tunela dokumentala.*
Sustraiak taldea. *Oso ondo...berriro! dokumentala. Igora Films*

enpresak egin du; Iñaki Gereñuk irudia, Egoitz Legorburuk munta-kea eta Amaia Jimenez eta Asier Iriondok gidoia.
Ataungo Udala. *Herria ereiten dokumentala, Joxemiel Barandiaran eskola ardatz.*
Ataungo Udala. *Ataungo Jentilbaratza gazteluaren birsortze digitala.*
Beñat Iturriotz. *Juanjo Iturriotz legorretarraren semeak zuzendutako Enarak dokumentala, Enarak taldea ardatz.*
Arteria Errizoma. *Xabin Fernandezek Ormaiztegiko eskolako ikasleekin batera sortutako Gar-bitu aurpegia ikus-entzunezkoa.*
Mikel Balerdi eta Deñe Garcia-Bravo. *Eraman zutela dokumentala.*

Antzerkia/bakarrizketak
Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola. *Arizona antzezlanak.*
Urrup antzerki taldea. *El 27 antzezlanak, Ana Martinezek idatzia eta eta Rosa Rojok zuzendua.*
Jon Plazaola. *AA Aita bakarrizketa.*
Jentilen Etorrera. *Ataundarrek Mitoaldirako ondutako antzezpena.*



Soroizek sariak batu ditu

LEGORRETA— Jose Ramon Soroizek aitortza ugari jaso ditu Moriarti ekoiztetxearen *Maspalomas* filmean egindako lanagatik. Irailean Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen, eta abenduan Forque saria. HITZA

Lautan Hiru lehiaketa irabazi du Xabin Fernandezek

LEGORRETA— Xabin Fernandez legorretarraren Gehibat Kultura Elkarteak irabazi du –azaroan– Euskaltzaindiak Bilboko Udaren babesarekin antolatzen duen Lautan Hiru lehiaketa. 2.500 euro jasoko ditu legorretarrak, eta hiru hilabeteko epea izango du lehiaketara aurkeztu duen *Zaku berekoak* lan laburra sortzeko. Otsailean antolatuko den VIII. Lautan Hiru antzerki-jaialdian estreinatuko da. ●LA

Lazkaon eta Beasainen ere, erraldoien miniaturak

GOIERRI— Goierriko zenbait erraldoik badituzte beren gomazko miniaturak. Beasaingo herritarren eskaerari erantzunez, Jone eta Mattin erraldoien bertsio txikiak jarri zituzten salgai lehen aldiz azaroaren hasieran. Erreserba bidez, segituan agortu ziren. Azaroaren amaieran, Lazkaoko Udalak ere atera zuen bere kanpaina; Mari eta Basajaun erraldoien miniaturazko 150 irudiz osatutako edizio mugatua. ●LG

Goierri Zuzenean, musika eszena indartzeko

GOIERRI— Goierriko hainbat kultur eragilek urrats berria egin dute eskualdeko musika eszena indartzeko eta oihartzun handiagoa emateko. Horrela sortu da Goierri Zuzenean izeneko sare berria, jada hainbat herritan ekimen musikalak antolatzen dituzten elkarteak elkartuz. Ez da festibal berri baten sorrera —oraingoz behintzat—, baizik eta elkarlan, konplizitate eta babesgune baten hasiera. ●AV



Etorkizuneko etxea
Jasangarria da, Orkli da





orkli



www.orkli.com

Urtebete, berrehundik gora ale

● 2025ean 179 HITZA argitaratu ditu Goierriko Hedabideak-ek.

● Astekarian, berriz, 'Goiberrin', 44 ale izan dira.

● Gehigarri mordo bat ere kaleratu ditu, askotariko gaiekin.



Mahai egutegia, gehigarriak, egunkaria eta webgunea, mahai berean. L.G.

L. Goiburu

GOIERRI— Goierriko Hedabideak S.L. enpresak 2025ean ere jarraitu du ekoizpen maila altuarekin. Urtebetean berrehundik gora ale argitaratu ditu bere papereko bi marken gerizpean. GOIERRIKO HITZA egunkariak 179 ale kaleratu ditu joan berri den urtean, eta *Goiberrin* astekariak, aldiz, 44 ale. Orotara, 223 ale dira paperean. Horiez gain, gehigarri mordo bat ere ekoitzi eta kaleratu dituzte Goierriko Hedabideek, askotariko gaien inguruan: *Gazta*, *Zegama-Aizkorri*, *Ehunmilak*, *Etxebizitza*, *Ongizatea*, *Dekorazioa*, *Euskaraldia*... baita Gabon kantu liburuxka, mahai egutegia, herriz herrikako festen egitarauak eta Goierriko zerbitzu gida ere. Papereko jardunaz aparte, horri gehitu behar zaio goierri.hitza.eus eta otamotz.eus webguneetako jariora.

Urte berria hasita, beste horrenbeste ekoizteko prest da Goierriko Hedabideak, digitalean nahiz euskarri fisikoan. ●

TXINDOKIrent
KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ
Makinariaren alokairua eta salmenta
alquilerestxindoki.com
943 070 700



1998 — 2023 www.aseplan.es
25 aseplan
URTEURRENA AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA ABOKATUAK KOMUNITATEAK
JOSE MIGEL ITURRIOTZ, Z/G • 943 08 64 20
DULCE M^a LOINAZ, 3 • 943 88 71 29 • BEASAIN

ik
UZ **Baleike**
www.uzbaleike.com


GAINTZA
udala
943 88 95 64
www.gaintza.eus



Gaztelu
Iturgintza
Berogintza
943 88 80 29 faxa: 943 16 14 64
gaztelu.koop@gmail.com
Esteban Lasa, 7 BEASAIN